# Bizkaiko Herrialde Estatutoak

2017ko ekainak 22an izandako Herrialde Batzarrean berretsita.

# Estatutos Territoriales de Bizkaia

Ratificados en Asamblea Territorial el 22 de junio de 2017.

| | Pág/ Orr | |
|---|---|---|
| I. TITULUA<br>ALDERDIKIDETZA | 4 | TÍTULO I<br>DE LA AFILIACIÓN |
| II. TITULUA<br>EAJ-PNVren ANTOLAKETA BIZKAIAN | 7 | TÍTULO II<br>DE LA ORGANIZACIÓN DE EAJ-PNV EN BIZKAIA |
| I. kapitulua.— Uri erakundeak | 7 | Capítulo I.—De las organizaciones municipales |
| II. kapitulua.— Herrialde erakundea | 11 | Capítulo II.—De la organización territorial |
| III. TITULUA<br>BATZARRAK | 12 | TÍTULO III<br>DE LAS ASAMBLEAS |
| I. kapitulua.— Uri Batzarrak | 12 | Capítulo I.— De las Asambleas Municipales |
| II. kapitulua.— Herrialde Batzarra | 15 | Capítulo II.— De la Asamblea Territorial |
| IV. TITULUA<br>ALDERDIKIDEAI ERETXIA ESKATZEA | 22 | TÍTULO IV<br>DE LA CONSULTA A LAS BASES |
| V. TITULUA<br>BURU BATZARRAK | 24 | TÍTULO V<br>DE LAS EJECUTIVAS |
| I. kapitulua.— Uri Buru Batzarrak | 24 | Capítulo I.—De las Juntas Municipales |
| II. kapitulua.— Herrialde Buru Batzarra<br>edo BIZKAI BURU BATZARRA | 27 | Capítulo II.— Del Consejo Territorial<br>o BIZKAI BURU BATZAR |
| VI. TITULUA<br>EPAILE ETA EPAIMAHAIAK | 29 | TÍTULO VI<br>DE LOS JUECES, JUEZAS Y TRIBUNALES |
| 1. kapitulua.— Uri epaile eta epaimahaiak | 30 | Capítulo I.—De los jueces, juezas y tribunales municipales |
| II. kapitulua.— Herrialde Epaimahaia | 31 | Capítulo II.—Del Tribunal Territorial de Justicia |
| VII. TITULUA<br>HERRI-KARGUDUNAK | 32 | TÍTULO VII<br>DE LOS CARGOS PÚBLICOS |
| VIII. TITULUA<br>ALDERDI BARRUKO KARGUETARAKO ETA HERRI-KARGUETARAKO HAUTAGAIAK AUKERATZEA | 34 | TÍTULO VIII<br>DE LAS ELECCIONES PARA CARGOS INTERNOS Y CANDIDATOS Y CANDIDATAS A CARGOS PÚBLICOS |
| I. kapitulua.— Danontzako arauak | 34 | Capítulo I.— Normas comunes |

| | | |
|---|---|---|
| II. kapitulua.— Herrialdeko Alderdi barruko kargudunak aukeratzea | 35 | Capítulo II.— Elección de cargos internos territoriales |
| III. kapitulua.— Herrialdeko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea | 40 | Capítulo III.— Elección de candidatos y candidatas a cargos públicos territoriales |
| IV. kapitulua.— Alderdi barruko uri kargudunak eta udalerriko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea | 45 | Capítulo IV.— Elección de cargos internos municipales y de candidatos y candidatas a cargos públicos municipales |
| IX. TITULUA<br>KARGUEN EGIKARITZAREN MUGAK | 49 | TÍTULO IX<br>LÍMITES AL EJERCICIO DE LOS CARGOS |
| I. kapitulua.— Oinarri orokorrak | 49 | Capítulo I.— Principios generales |
| II. kapitulua.— Bateraezintasun osoak | 49 | Capítulo II.— Incompatibilidades absolutas |
| III. kapitulua.— Alderdiaren barruko karguen arteko bateraezintasunak | 50 | Capítulo III.— Incompatibilidad entre cargos internos |
| IV. kapitulua.— Alderdiaren barruko karguen eta herri-kargudunen arteko bateraezintasuna | 51 | Capítulo IV.— Incompatibilidad entre cargos internos y públicos |
| V. kapitulua.— Bateraezintasunak kentzea | 55 | Capítulo V.— Levantamiento de incompatibilidades |
| X. TITULUA<br>EAJ-PNVren ANTOLAKETA EKONOMIKOA | 57 | TÍTULO X<br>DE LA ORGANIZACIÓN ECONÓMICA DE EAJ-PNV |
| XI. TITULUA<br>HERRIALDE ESTATUTUAK ALDARAZOTEA | 59 | TÍTULO XI<br>REFORMA DE LOS ESTATUTOS TERRITORIALES |
| AZKEN ERABAGIA | 60 | DISPOSICIÓN FINAL |

1. artikulua.— 1. Herrialde Estatutu honeek egin dira Euzko Alderdi Jeltzalearen Aberri Estatutuen arabera. Aberri Estatutuok onetsi ziran 2016ko urtarrilaren 26an egindako Ezohiko Aberri Batzarrean, eta berronetsi ziran 2016ko otsailaren 13 eta 14an egindako Batzar Nagusian.

Artículo 1.— 1. Los presentes Estatutos Territoriales se entienden de acuerdo con los Estatutos Nacionales de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco aprobados en la Asamblea Nacional Extraordinaria celebrada el día 26 de enero de 2016, y ratificados en la Asamblea General celebrada los días 13 y 14 de febrero de 2016.

2. Herrialde Estatutu honeetan erabagita ez dagoana arautuko dabe Aberri Estatutuen erabagiak.

2. En lo no dispuesto en estos Estatutos Territoriales se estará a lo dispuesto en los Estatutos Nacionales.

# I. TITULUA ALDERDIKIDETZA

# TÍTULO I DE LA AFILIACIÓN

2. art.— Alderdikidetza eskatu eta gauzatuko da eskatzailea bizi dan lekuko Uri Erakundean edo, hori izan ezean, herririk hurrenekoan egingo da. Errazoiak izan ezkero, beste Uri Erakunde baten jaso leiteke alderdikidetza, Uri Buru Batzar bien arteko akordio egokia aurretiaz burutu ezkero.

Art. 2.— La afiliación debe solicitarse y producirse en la Organización Municipal del lugar en el que el o la solicitante tenga fijada su residencia o, en su defecto, la más próxima. Por razones justificadas podrá afiliarse en otra Organización Municipal, mediando previamente el correspondiente acuerdo entre las dos Juntas Municipales.

Egoitza aldatzen bada, alderdikideak aldaketaren barri emongo dau Uri Buru Batzarrean; honek, era berean, helbide barriaren arabera eskumena dauen Uri Buru Batzarrari bialduko deutso. Alderdikidearen Uri Erakunde barriak derrigor onetsi beharko dau bera, antxinakotasuna errespetatuz.

En el supuesto de cambio de residencia, el afiliado o afiliada comunicará esta circunstancia a su Junta Municipal, la cual dará traslado de su ficha a la Junta Municipal competente en razón del nuevo domicilio. La Organización Municipal a la que pase a pertenecer el afiliado o afiliada deberá admitirlo o admitirla necesariamente, respetando su antigüedad.

Salbuespenez, egoitza aldatzen dauen alderdikideak lehenengo Uri Erakundean jarraitu ahal izango dau, baldin eta Erakunde bien arteko aurreakordioa badago.

Excepcionalmente, el afiliado o afiliada que cambie de residencia podrá permanecer en su Organización Municipal, previo acuerdo de las dos Organizaciones implicadas.

Uri Erakunde bat zatitzen bada, zatiketa horrek joten dituan alderdikideak erregistratuko dira ezarritako mugapearen

Los afiliados o afiliadas que resulten afectados o afectadas por la división de su Organización Municipal se registrarán

arabera eurai jagoken Erakundean, salbu eta, bidezko errazoiakaitik, Uri Buru Batzar biak alkarren adostasunez baimentzen badabe horren aurkakoa.

en aquella Organización que según la demarcación establecida les corresponda, salvo que por causas justificadas ambas Juntas Municipales autoricen de mutuo acuerdo lo contrario.

3. art.— 1. Alderdikidetza-eskabidea behar legez bete eta izenpetu egingo da, eta alderdikidetuta gitxienez bi urte daroen beste alderdikide biren babesa beharko dau; eta Uri Erakundeko alderdikideak jakin daien, agerian egongo da eskabidea hilabeteko epean. Era berean, Uri Buru Batzarrak eskabidearen kopia igorriko deutso Bizkai Buru Batzarrari.

Art. 3.— 1. La solicitud de afiliación deberá ser debidamente cumplimentada, firmada por la persona interesada, avalada por dos afiliados o afiliadas con al menos dos años de afiliación, y expuesta durante un mes para conocimiento de las afiliadas y los afiliados de la Organización Municipal. Al mismo tiempo, la Junta Municipal remitirá copia de la solicitud al Bizkai Buru Batzar.

2. Alderdikidetza onesteko edo ukatzeko, Uri Buru Batzarrak hartutako ebazpenak hiru hilabeteko gehienezko epearen barruan emongo dira, eta eskatzaileari eta abal-emoile biai jakinarazoko jake. Ebazpenik ez badago, ukatutzat joko da. Onarpen eta ukapen guztiak, azken honeen barruan isilekoak sartuta, Bizkai Buru Batzarrari jakinarazoko jakoz. Ukapenen kasuan, horreen zio diran errazoiak be emon beharko dira.

2. Las resoluciones adoptadas por la Junta Municipal admitiendo o denegando la afiliación se dictarán en el plazo máximo de tres meses desde la fecha de la solicitud, y serán comunicadas al interesado o interesada y a los dos avalistas. Caso de no pronunciarse, se entenderá denegada. Todas las aceptaciones y denegaciones, incluidas entre estas últimas las tácitas, serán puestas en conocimiento del Bizkai Buru Batzar. En el caso de las denegaciones se deberán incluir las causas que las motivan.

3. Edozein alderdikidek Uri Batzarrera eroan daike Uri Buru Batzarrak alderdikidetza emoteko edo ukatzeko hartutako erabagia. Uri Batzar honek bi hilabeteko gehienezko epean hartu beharko dau ebazpena.

3. Contra el acuerdo de la Junta Municipal sobre admisión o denegación de la afiliación, cualquier afiliado o afiliada podrá recurrir a la Asamblea Municipal, la cual deberá resolver en el plazo máximo de dos meses.

4. EAJ-PNV nahita itzi daben alderdikideak euren Uri Erakundearen bitartez bakarrik eskatu ahal izango dabe Alderdian barriz sartzea, Alderdian baja benetan emon eben egunetik urte bi igaro ondoren. Ondorio horreetarako, ez da borondatezko bajatzat hartuko, alderdikidearen lanbideagaz edo lanpostuagaz zerikusia izan daikeen

4. Los afiliados o afiliadas que hubiesen causado baja voluntaria en EAJ-PNV solo podrán solicitar su reingreso en la correspondiente Organización Municipal una vez transcurridos dos años a partir de su baja efectiva. No se entenderá como baja voluntaria a estos efectos aquella que viniese derivada de exigencias legales relacionadas con la profesión o

legezko eskakizunakaitik egiten dana.

puesto de trabajo del afiliado afectado o de la afiliada afectada.

Egoitza aldatu badau, ezinbestekoa izango da berak baja emon eban Uri Erakundearen txostena.

Si hubieran cambiado de residencia será preceptivo el informe de la Organización en que causaron baja.

5. Alderdikide bakotxari bere Uri Buru Batzarrak ondoko honeek eskuratuko deutsoz: alderdikidetza-txartela, eta estatutu eta araudien ale bana, baita une horretan EAJ-PNVren proiektu politikoa finkatzen daben agirien bilduma bere. Era berean, Uri Buru Batzarrak jakinarazoko dau zein bide dagoan parte hartzeko, bai Uri Erakundearen barruan, bai EAJ-PNVren gainerako jarduketa-eremuetan.

5. A todo afiliado o afiliada se le proveerá, por su respectiva Junta Municipal, del correspondiente carné de afiliación y de un ejemplar de los Estatutos y Reglamentos, así como de los documentos que en ese momento fijen el proyecto político de EAJ-PNV. Asimismo, la Junta Municipal correspondiente, informará sobre los cauces de participación, tanto dentro de la Organización Municipal como en otros ámbitos de actuación de EAJ-PNV.

Bizkai Buru Batzarrak, Uri Buru Batzarrakaz batera, prestakuntza-ikastaroak emongo ditu aldian-aldian, alderdikideak EAJ-PNVren planteamentu ideologikoak, egitaraua eta antolaketa jakingo dituela bermatzeko.

El Bizkai Buru Batzar, en colaboración con las Juntas Municipales, impartirá periódicamente cursos de formación para asegurar el conocimiento por los afiliados y afiliadas de todo lo relativo a planteamientos ideológicos, programa y organización de EAJ-PNV.

4. art.— 1. Alderdikidetza-eskabidea Bizkai Buru Batzarrak ebatziko dau ondoko kasu honeetan:

Art. 4.— 1. La solicitud de afiliación será resuelta por el Bizkai Buru Batzar en los siguientes supuestos:

a) Eskatzaileak aurretik EAJ-PNVtik kanporatu dituenean, edo, EAJ-PNVn baja emonda, horreri kalte handiren bat egin deutsienean. Kasu honetan, kanporatzearen edo bajaren egunetik hiru urte igaro behar izango dira, barriz sartzea eskatu ahal izateko.

a) Cuando los y las solicitantes hubiesen sido expulsados o expulsadas de EAJ-PNV o habiéndose dado de baja hubiesen causado una lesión grave a EAJ-PNV. En este caso, solo podrán solicitar su reingreso una vez transcurridos tres años desde su expulsión o baja.

Alderditik kanporatuak izan badira, Bizkai Buru Batzarrak Epaimahai zigortzaile eskudunari eskatuko deutso zigor horren oinarri izan diran errazoi guztien txosten osoa. Kasu bietan, eskatzaileak lehen egoan Uri Buru Batzarrari edo sartu nahi dauen barriari, edo biai, eskatuko deutse idatzizko txosten bat Alderdian baja emon ebanetik zelango jardun politikoa agertu dauen erakutsiz.

En el supuesto de expulsión, el Bizkai Buru Batzar solicitará del Tribunal sancionador correspondiente el expediente completo en el que haya basado su sanción. En ambos casos, requerirá de la Junta Municipal a la que perteneció o a la que desee pertenecer, o a ambas a la vez, un informe escrito sobre la actuación política del o de la solicitante desde la fecha de la baja.

b) Eskatzaileak beste alderdi bateko alderdikideak izan diranean, edota beste alderdi politiko baten eskutik hauteskundeetara aurkeztuak edo herri-kargu baten jarduteko aukeratuak izan diranean.

c) Uri Buru Batzarrak, berak apartekotzat joten dituan errazoiak dirala eta, txostena Bizkai Buru Batzarrari igortzen dutsonean.

d) Aurretik bere alderdikidetza eskatu eta hori ukatu jakonean. Bizkai Buru Batzarrak entzun beharko dau Uri Buru Batzarra, eskabidea ebatzi baino lehen.

2. Bizkai Buru Batzarraren ebazpenaren aurka, edozein alderdikidek aurkeztu deikeo errekurtsoa Herrialde Epaimahaiari.

b) Cuando los o las solicitantes hubieran militado en otro partido, hubieran sido presentados o presentadas a las elecciones, o designados o designadas por otra formación política para ejercer un cargo público.

c) Cuando la Junta Municipal, por razones que ella considere extraordinarias, remitiera el expediente al Bizkai Buru Batzar.

d) Cuando hubiera sido solicitada la afiliación con anterioridad y ésta hubiera sido denegada. La Junta Municipal deberá ser oída por el Bizkai Buru Batzar antes de resolver la solicitud.

2. Contra la resolución del Bizkai Buru Batzar, cualquier afiliado o afiliada podrá presentar recurso ante el Tribunal Territorial.

# II. TITULUA EAJ-PNVren ANTOLAKETA BIZKAIAN

## *I. kapitulua.— Uri erakundeak*

5. art.— 1. Bizkaian Euzko Alderdi Jeltzalearen Uri Erakunde bat eratzeko, bost alderdikide behar dira, gitxienez, udal mugartean edo mugapean; eta, gainera, ezinbestekoa da aurretik Bizkai Buru Batzarraren baimena eukitea.

2. Egoera geografikoak edo alderdikideen kopuruak errazoituta, Uri Erakunde bat behar hainbat Erakundetan banatu daiteke, ondoko kasu honeetan:

a) Eratu behar dan Uri Erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta

# TÍTULO II DE LA ORGANIZACIÓN DE EAJ-PNV EN BIZKAIA

## *Capítulo I.—De las organizaciones municipales*

Art. 5.— 1. Para constituir una Organización Municipal de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco en Bizkaia es precisa la existencia de cinco afiliados o afiliadas como mínimo en el término municipal o demarcación y la previa autorización del Bizkai Buru Batzar.

2. En los municipios en los que su configuración geográfica o el número de afiliación lo justifique, podrá dividirse una Organización Municipal en cuantas Organizaciones se crean oportunas:

a) Previa solicitud de más del 50 por ciento de la afiliación domiciliada en el

dagozan alderdikideen ehuneko 50ek baino gehiagok eskatu ezkero, eta Bizkai Buru Batzar eskudunak baimena emonda, lehengo Uri Erakundeari entzun eta gero.

término o demarcación de la Organización Municipal a constituir y con la autorización correspondiente del Bizkai Buru Batzar, oída la Organización Municipal existente.

b) Bizkai Buru Batzarrak proposatu eta eratu behar dan Uri Erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta dagozan alderdikideen ehuneko 50en baino gehiagoren adostasunagaz, lehengo Uri Erakundeari entzun eta gero.

b) A propuesta del Bizkai Buru Batzar y de acuerdo con más del 50 por ciento de la afiliación domiciliada en el término o demarcación de la Organización Municipal a constituir, oída la Organización Municipal existente.

Uri Erakunde bat zatitzen danetan, batzorde bat sortuko da; batzorde hori osotuko dabe ekimenaren proposatzaileen ordezkariak, bereizketaren jatorriko Erakundearen ordezkariak eta Bizkai Buru Batzarraren ordezkariak; eta haren helburua izango da, besteak beste, lurralde-mugapea eta ondarea zehaztea, Uri Erakunde barria eratu baino lehen.

En los casos de división de una Organización Municipal, se creará una Comisión compuesta por representantes de los o las proponentes de la iniciativa, de la Organización de la cual se pretende realizar la segregación y del Bizkai Buru Batzar, a fin de determinar, entre otras cuestiones, la demarcación territorial y el patrimonio, antes de la constitución de la nueva Organización Municipal.

3. Uri Erakunde bik edo gehiagok bat egin ahal izan daien, beharrezkoa izango da Uri Erakundeetarik bakotxeko kideen ehuneko 50ek baino gehiagoak hala onestea, eta Bizkai Buru Batzarraren baimen egokia jasotea.

3. Para proceder a la fusión de dos o más Organizaciones Municipales es necesario que así lo acuerden más del 50 por ciento de los o las componentes de cada una de las Organizaciones Municipales afectadas y recibir la autorización correspondiente del Bizkai Buru Batzar.

6. art.— Uri Erakunde bakotxak bere Uri Estatutuen arabera egingo dau barru-antolaketa, beti be goragoko mailako estatutu eta araudietan erabagitakoa kontuan hartuaz.

Art. 6.— Cada Organización Municipal se organizará internamente de acuerdo con sus Estatutos Municipales, que observarán en todo caso lo dispuesto en los Estatutos y Reglamentos de rango superior.

Uri Erakundeak zainduko dabe euren Estatutuak beti egokituko dirala Aberri Estatutuak edo Bizkaiko Herrialde Estatutuak aldarazoteko prozesuetarik bakotxaren ondoriozko idazkeraren arabera.

Las Organizaciones Municipales velarán por la adecuación permanente de sus Estatutos Municipales a la redacción que resulte de cada proceso de reforma de los Estatutos Nacionales o de los Territoriales de Bizkaia.

*Buru Batzarren Artekoa*

*Interjuntas*

7. art.— 1. Bizkai Buru Batzarrak, Uri Erakundeen gehiengoak hala eskatzen badau, Buru Batzarren Artekoa eratzea

Art. 7.— 1. El Bizkai Buru Batzar, a petición de una mayoría de las Organizaciones Municipales, podrá

erabagi ahal izango dau.

acordar la constitución de una Interjuntas.

Uri Erakunde bat baino gehiago dagoan udalerrietan, Bizkai Buru Batzarrak erabagiko dau Buru Batzarren Artekoa eratzea.

En aquellos municipios en los que existan varias Organizaciones Municipales, el Bizkai Buru Batzar acordará la constitución de una Interjuntas.

2. Bizkai Buru Batzarrak Buru Batzarren Artekoa eratzeko hartuko dauen erabagian ezarriko da Jardunbiderako Barru Araudia, tartean dagozan Erakundeai entzun eta gero; eta araudian agertuko dira, gitxienez, xedeak, eginkizun zehatzak eta erabagiak hartzeko modua, bai eta jarduketa-eremua bere.

2. En el acuerdo del Bizkai Buru Batzar de constitución de Interjuntas se fijará, oídas las Organizaciones afectadas, el Reglamento interno de funcionamiento donde constarán, al menos, su composición, sus fines, funciones específicas y toma de acuerdos, así como su ámbito de actuación.

3. Buru Batzarren Artekoa organo funtzionala da, eta ardura dauka Euzko Alderdi Jeltzalearen ekintza politikoa batu, sakatu eta kontrolatzeko, beti be haren sorrera eragin eben eginkizun eta xedeetarako, eta bere jarduketa-eremuaren barruan.

3. Interjuntas es un órgano funcional encargado de aglutinar, impulsar y controlar la acción política de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco, en aquellas funciones y fines por los que fue creado, en su ámbito de actuación.

4. Buru Batzarren Artekoari jagoko, Uri Batzarrak ezarten dituen jarraibideakaz bat, Aberri Estatutuen 21. artikuluan ezarritakoaren babesean jagokozan eskumenak egikaritzea:

4. Corresponde a Interjuntas, de acuerdo con las directrices marcadas por las Asambleas Municipales en el ejercicio de las competencias que les asisten al amparo de lo establecido en el artículo 21 de los Estatutos Nacionales:

a) EAJ-PNVren ekintza politikoa koordinatzea berari jagokon udalerrian.

a) Coordinar la actuación política de EAJ-PNV en el municipio correspondiente.

b) Euren eremuan dihardUen udal kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea.

b) Orientar, apoyar y controlar a los cargos municipales que actúen en su ámbito.

c) Uri Batzarrai proposatzea herri-aukeraketako udal herri-karguetarako hautagaiak, hau da, alkatea eta zinegotziak.

c) Proponer a las Asambleas Municipales los candidatos y las candidatas a cargos públicos municipales de elección popular: alcalde o alcaldesa y concejales y concejalas.

Bilbon, herri-aukeraketako udal-karguetarako hautagaien proposamena Buru Batzarren Artekoaren eta Bizkai Buru Batzarraren arteko adostasunaz egingo da.

En Bilbao, la propuesta de candidatos y candidatas a cargos públicos municipales de elección popular será elaborada de mutuo acuerdo entre Interjuntas y el Bizkai Buru Batzar.

d) Udal herri-kargudunen urteko txostena hartu eta aztertzea; eta horren barri emongo jake Uri Batzarrai, beroneek onesteko edo, bestela, ezesteko, horretarako beharrezkoa dala Uri Batzarren erdien gehi baten erabagia, aldi berean, gehiengo horrek ordezkatu behar dau Buru Batzarren Artekoan dagozan ordezkarien gehiengo osoa.

e) Udal hauteskundeetan hauteskunde kanpainen jarraipen eta kontrola antolatu eta gauzatzea, Bilbon izan ezik, hemen eginkizunok Bizkai Buru Batzarrak egingo ditualako.

8. art.— 1. Buru Batzarren Artekoa gitxienez osotuko dabe Uri Erakunde parte-hartzaile bakotxaren Uri Buru Batzarreko lehendakariak edo horreek izendatutako pertsonak eta Bizkai Buru Batzarreko kide bik.

2. Uri Erakunde batek be ezin izango dau Buru Batzarren Artekoan gehiengo osoa izan.

3. Bizkai Buru Batzarrak finkatu eta jakinarazoko dau Uri Erakunde bakotxak Buru Batzarren Artekoan izango dauen ordezkaritza urte osorako, behin Estatutu honeen 19. artikulua eta 97. artikulua aplikatu eta gero, salbu eta Buru Batzarren Artekoaren barruan kide guztiak aho batez beste ordezkaritza mota bat erabagiten badabe.

4. Buru Batzarren Artekoaren kideen agintaldia izango da jardunbiderako barru araudian ezarten dana.

9. art.— 1. Buru Batzarren Artekoaren kide guztiak ditue betebehar eta eskubide bardinak; beti be, indarrean diraue kide horietarik bakotxak esleituta dituan erantzukizunak.

2. Buru Batzarren Artekoaren kide

d) Recibir y analizar el informe anual de los cargos públicos municipales, debiendo dar cuenta del mismo a las respectivas Asambleas Municipales para su aprobación o, en su caso, rechazo, para lo cual se requerirá cuando menos el acuerdo de la mitad más una de las Asambleas Municipales, siempre que dicha mayoría represente, asimismo, la mayoría absoluta de representantes en Interjuntas.

e) Organizar y efectuar el seguimiento y control de las campañas electorales en las elecciones municipales, salvo en Bilbao, donde dichas funciones serán ejercidas por el Bizkai Buru Batzar.

Art. 8.— 1. Interjuntas estará integrada como mínimo por el Presidente o la Presidenta de la Junta de cada Organización Municipal que la componga o por la persona en quien delegue, y dos miembros del Bizkai Buru Batzar.

2. Ninguna Organización Municipal podrá disponer de la mayoría absoluta de votos en Interjuntas.

3. La representatividad de cada Organización Municipal en Interjuntas, una vez aplicados el artículo 19 y el artículo 97 de los presentes Estatutos quedará fijada y comunicada por el Bizkai Buru Batzar para todo el año, salvo que en el seno de Interjuntas se apruebe por unanimidad de todos sus miembros otro tipo de representación.

4. El mandato de los miembros de Interjuntas será el que se establezca en su reglamento interno de funcionamiento.

Art. 9.—1. Todos los miembros de Interjuntas son iguales en obligaciones y en derechos, sin perjuicio de las responsabilidades que personalmente tenga atribuidas cada uno de ellos.

2. Todos los miembros de Interjuntas

guztiak ditue ondoko eskubide eta betebeharrok:

a) Buru Batzarren Artekoaren eztabaida guztietan parte hartzea, adierazpenak egin eta botoa emoteko askatasun osoagaz, salbu eta Uri Batzarraren aginduzko manamentua dagoanean.

b) Buru Batzarren Artekoaren barruan erantzukizunak banatzean parte hartzea.

c) Buru Batzarren Artekoaren kide guztietarik bakotxaren jardunen barri jasotea, bai eta aukeratzen diran udal herri-kargudunena bere.

10. art.— Uri Buru Batzarreko lehendakariak edo honen eskuordeak Buru Batzarren Artekoaren inguruko zuribidea eskainiko dau bere Uri Batzarrean. Bizkai Buru Batzarrak izendatutakoak beraren mende egongo dira.

11. art.— Uri Buru Batzarretako Lehendakarien edo hareen eskuordeen eta Herrialde Buru Batzarraren kideen arteko ezadostasuna badago, horreetako edonork gaia Herrialde Batzarrera eroan ahal izango dau, eta auzia bertan erabagiko da.

## *II. kapitulua.— Herrialde erakundea*

12. art.— Bizkaiko Euzko Alderdi Jeltzalearen Herrialde Erakundea osotzen dabe lurralde horretako Uri Erakundeak.

tienen derecho y obligación de:

a) Participar en las deliberaciones de Interjuntas con plena libertad de expresión y voto, salvo que exista mandato imperativo de la Asamblea Municipal.

b) Participar en la distribución de responsabilidades en el interior de Interjuntas.

c) Recibir información de las distintas actuaciones de cada uno de los miembros de Interjuntas y de los cargos municipales electos.

Art. 10.— El presidente de la Junta Municipal o aquel en quien delegue hará su correspondiente descargo sobre Interjuntas en su Asamblea Municipal. Los miembros designados por el Bizkai Buru Batzar responderán ante este.

Art. 11.— En el supuesto de desacuerdo entre los Presidentes y/o las Presidentas de las Juntas Municipales o las personas en quienes deleguen y los o las miembros del Consejo Territorial, cualquiera de ellos podrá avocar el tema a la Asamblea Territorial correspondiente que dilucidará la cuestión.

## *Capítulo II.—De la organización territorial*

Art. 12.— La Organización Territorial de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco en Bizkaia está integrada por las Organizaciones Municipales de dicho territorio.

# III. TITULUA BATZARRAK

## I. kapitulua.— Uri Batzarrak

13. art.— Uri Batzarra da Udal Erakundearen organo nagusia.

Uri Batzarra Uri Erakundeko alderdikideak osotzen dabe, hareek bildurik dagozala estatutuetan eta araudietan ezarritako betekizunen arabera.

14. art.— Uri Batzarrari ondoko hau jagoko:

a) Bere udal-mugartean EAJ-PNVren politika zuzentzea, beti be, goragoko organoak hartutako erabagi eta gidalerroak betez.

b) Uri Estatutuen onespenaren bitartez, EAJ-PNVren maila honetako antolaketa eta jardunbide-araubidea finkatzea.

c) Aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak onestea eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua onestea, Uri Buru Batzarrak proposatuta eta ekitaldiko lehen hilebetean.

d) Uri Buru Batzarra eta Uri Epaile edo Epaimahaia aukeratzea.

e) Bizkaiko Herrialde Batzarrerako ahaldunak eta Batzar Nagusirako ordezkariak aukeratzea, hartutako erabagiak hareek beteten dituela kontrolatu eta horreei, behar izan ezkero, erantzukizunak eskatzea.

f) Herrialde Batzarrean eta Batzar Nagusian, Uri Erakundearen izenean aurkeztu leitekezan proposamenak onestea.

# TÍTULO III DE LAS ASAMBLEAS

## Capítulo I.— De las Asambleas Municipales

Art. 13.— La Asamblea Municipal es el órgano máximo de la Organización Municipal.

La Asamblea Municipal está integrada por los afiliados y las afiliadas de la Organización Municipal, reunidos de acuerdo con los requisitos previstos en los Estatutos y Reglamentos.

Art. 14.— Corresponde a la Asamblea Municipal:

a) Dirigir la política de EAJ-PNV en su término municipal, respetando en todo caso los acuerdos y directrices que emanen de los órganos superiores.

b) Fijar, a través de la aprobación de los Estatutos Municipales, la organización y régimen de funcionamiento de EAJ-PNV a este nivel.

c) Aprobar las cuentas anuales del ejercio económico cerrado y el presupuesto para el siguiente ejercicio, a propuesta de la Junta Municipal dentro del primer mes del ejercicio.

d) Elegir a la Junta Municipal y al Juez, Jueza o Tribunal Municipal.

e) Elegir a los apoderados y apoderadas a la Asamblea Territorial de Bizkaia y a los o las representantes a la Asamblea General, controlar el cumplimiento por aquellos o aquellas de los acuerdos adoptados y exigirles, en su caso, responsabilidad.

f) Aprobar las propuestas que en nombre de la Organización Municipal pudieran presentarse a las Asambleas Territorial y General.

g) Alkategai eta zinegotzigaiak aukeratzea, Estatutuetan eta Araudietan ezarritakoaren arabera.

g) Elegir a los candidatos y candidatas a alcalde o alcaldesa y concejales y concejalas, de acuerdo con lo previsto en los Estatutos y Reglamentos.

h) Uri Buru Batzarraren jarduketa politikoa zuzendu, eta haren bidez Buru Batzarren Artekoaren kideak, Buru Batzarren Arteko hori badago, haren kudeaketa eta hartutako erabagiak bete daitezan kontrolatu, eta, behar izan ezkero, hareen karguaren egikaritzagaitik erantzukizuna eskatzea.

h) Orientar la actuación política de la Junta Municipal y a través de ella a sus miembros de Interjuntas, si existiese, controlar su gestión y el cumplimiento de los acuerdos adoptados, y exigir, en su caso, responsabilidad por el ejercicio de su cargo.

i) Udal eremuko herri-kargudunen jarduketa politikoa zuzendu, eta, behar izan ezkero, erantzukizun politikoa eskatzea.

i) Orientar la actuación política de los cargos públicos de ámbito municipal y exigir, en su caso, responsabilidad política.

j) Alderdi barruko uri kargudunak eta udalerriko herri-karguetan diharduen alderdikideak aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

j) Analizar el informe anual presentado por los cargos internos municipales y por los afiliados y afiliadas que ejerzan cargos públicos municipales para su aprobación o, en su caso, rechazo.

k) Herrialde edota aberri eremuko Alderdi barruko karguetarako, eta herrialde, aberriko eta aberriz kanpoko herri-karguetarako hautagaiak proposatzea, Estatutuetan eta Araudietan ezarritakoaren arabera.

k) Proponer candidatos y candidatas a cargos internos territoriales y nacionales, y candidatos y candidatas a cargos públicos de ámbito territorial, nacional y extranacional, de acuerdo con lo previsto en los Estatutos y Reglamentos.

l) Uri Erakundeko alderdikideen artean urtero kontu-aztertzailea edo aztertzaileak aukeratzea. Gehien jota hiru izango dira. Kontu aztertzaileek Uri Buru Batzarrak aurkeztutako urteko kontuen egokitasunaz eta barne kontrolerako sistemaz informauko dabe. Egingo daben txosten hori UBBaren proposamenez onartzeko aurkeztuko diran urteko kontuakaz batera aurkeztuko da.

l) Elegir anualmente al censor o censores de cuentas entre la afiliación de la Organización Municipal, hasta un máximo de 3. Aquellos informarán sobre la idoneidad de las cuentas presentadas por la Junta Municipal y sobre el sistema de control interno. Su informe se acopañará a las cuentas anuales del ejercicio sometido a la aprobación a propuesta de la Junta Municipal.

15. art.— Uri Batzarrak egingo dira:

Art. 15.— Las Asambleas Municipales se celebrarán:

1. Ohiko bilkuran, urtean behin, lehenengo bihilekoan, beti ere Ohiko Herrialde Batzarra baino lehen, honako helburu honeekaz, gitxienez:

1. En sesión ordinaria una vez al año, dentro del primer bimestre, y siempre con anterioridad a la Asamblea Territorial Ordinaria, con el objeto de, cuando

menos:

a) Uri Buru Batzarrak, Uri Epaile edo Epaimahaiak eta udal herri-karguetan dihardUen alderdikideak aurkezten dituen urteko txostenak aztertzea, eurak onesteko edo, bestela, ezesteko.

a) Analizar los informes anuales presentados por la Junta Municipal, por el Juez, jueza o Tribunal municipal y por los afiliados y afiliadas que ejerzan cargos públicos municipales para su aprobación o en su caso rechazo.

b) Aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak onartzea eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzea, Buru Batzarrak proposatuta eta ekitaldiko lehen hilabetean.

b) Aprobar las cuentas anuales del ejercicio económico cerrado y el presupuesto para el siguiente ejercicio, a propuesta de la Junta Municipal dentro del primer mes del ejercicio.

c) Bidezkoa bada, uriko barru kargudunak barriztatzea.

c) Proceder, en su caso, a la renovación de los cargos internos municipales.

Ohiko Uri Batzarra deitzen ez bada, bera otsaileko azken barikuan batuko da beste barik, aurreko Uri Batzarra egin zan leku eta ordu beretan, salbu eta Uri Estatutuak beste egun bat finkatzen badabe batzarra egiteko.

En el caso de que no se convocara la Asamblea Municipal Ordinaria, esta se reunirá automáticamente el último viernes del mes de febrero, en el mismo lugar y hora de la anterior Asamblea Municipal, salvo que los Estatutos Municipales correspondientes señalen otro día para su celebración.

2. Ezohiko bilkuran, honela deituta:

2. En sesión extraordinaria convocada:

a) Uri Batzarrak berak erabagita.

a) Por decisión de la propia Asamblea Municipal.

b) Uri Buru Batzarraren ekimenez.

b) Por iniciativa de la Junta Municipal.

c) Uri Erakundeko alderdikideen ehuneko 10ek, gitxienez, izenpetutako eskari batez; beti be, izenpetzaileak, gitxienez, bost izan behar dabe.

c) A petición suscrita, como mínimo, por el 10 por ciento de sus afiliados y afiliadas, siempre que no sean menos de cinco.

3. Ezohiko Uri Batzarra derrigor batuko da Herrialde Batzarra egin aurretik, honako xede honeetarako: Herrialde Estatutu honeetako IV. tituluan alderdikideai eretxia eskatzeko egiten diran prozesuetan erabagia hartzeko; eta araudien arabera beharrezkoa danean Herrialde Batzarrean eztabaidatu beharreko gaiak aztertzeko.

3. La Asamblea Municipal Extraordinaria se reunirá preceptivamente antes de la Asamblea Territorial, al objeto de adoptar la decisión correspondiente en los procesos de consulta a las bases señalados en el Título IV de los presentes Estatutos Territoriales, y cuando reglamentariamente sea preciso tratar los asuntos que se vayan a debatir en la Asamblea Territorial.

4. Ezohiko Uri Batzarra egingo da, ondoren emongo diran daten ondoko 30

4. La Asamblea Municipal Extraordinaria se celebrará dentro de los 30 días

egun naturalen barruan:

a) Deialdia egiteko eskaria aurkezten dan datatik zenbatuta.

b) Herrialde Batzarra, derrigor, egiten dan datatik zenbatuta, ahaldunak euren kudeaketaren gaineko kontuak emon daiezan.

5. Epealdi horren lehenengo hamabost egunen barruan egiten ez bada Ezohiko Uri Batzarrerako deialdia, eskatzaileak Uri Epaileari edo Epaimahaiari jarri deikeoe errekurtsoa, eta honek Batzarrerako deialdia egingo dau, errekurtsoa aurkezten dan egunetik zenbatu beharreko hogei eguneko epealdiaren barruan egiteko Batzarra.

16. art.— Batzarraren deialdi formala idatziz egin beharko da bera egin baino 15 egun natural lehenago, gitxienez, salbu eta Ezohiko Batzarretan, premina eta larritasun handiko egoerak epe hori laburtzeari eragiten deutsienean. Edozelan bere, preminazko egoera hori Batzarrak berronetsi beharko dau aurretiazko gai legez.

17. art.— Uri Batzarrak bertan dagozan kideen gehiengo soilaren bitartez hartuko ditu erabagiak, salbu eta beste araubide ezbardin bat berenberegi ezarten danetan.

18. art.— Uri Erakundeak ahaleginduko dira Herrialde Batzarrean dituen ahaldunen agintaldia ahalik eta egonkorrena izan daiten; horretarako, ahaldunak epealdi jakin batzuetarako izendatuko dira, hareen izendapenaren ezeztapen askeari kalterik egin barik.

## *II. kapitulua.— Herrialde Batzarra*

19. art.— 1. Herrialde Batzarra da

naturales siguientes a:

a) La fecha de presentación de petición de convocatoria.

b) La celebración de cada Asamblea Territorial, con carácter obligatorio, al objeto de que los apoderados o apoderadas rindan cuentas de su gestión.

5. Caso de no convocarse la Asamblea Municipal Extraordinaria dentro de los quince primeros días de dicho periodo, cabe recurso ante el Juez o la Jueza o el Tribunal Municipal, quien convocará la Asamblea para su celebración dentro de un período de veinte días a contar desde la fecha de presentación del recurso.

Art. 16.— La convocatoria formal de la Asamblea deberá realizarse por escrito por lo menos con 15 días naturales de antelación a la fecha de su celebración, salvo en las Asambleas Extraordinarias cuando circunstancias de especial urgencia y gravedad aconsejen reducir dicho plazo. La valoración de la urgencia deberá ser ratificada por la Asamblea como cuestión previa.

Art. 17.— Los acuerdos de la Asamblea Municipal se adoptarán por mayoría simple de miembros presentes, salvo en los supuestos en los que de manera expresa se establezca un régimen distinto.

Art. 18.— Las Organizaciones Municipales procurarán la mayor estabilidad posible del mandato de sus apoderados y apoderadas a la Asamblea Territorial, designándolos o designándolas para periodos determinados, sin perjuicio de la libre revocación de su nombramiento.

## *Capítulo II.— De la Asamblea Territorial*

Art. 19.— 1. La Asamblea Territorial es

Herrialde Erakundearen organo nagusia, eta ondoko honeek osotzen dabe:

a) Uri Erakunde bakotxeko, ahaldun 1etik 4rakoak, proportzinozko ordezkaritza arindu eta mugatuzko sistema baten arabera aukeratuak izan diranak:

100 alderdikideraino: ahaldun bat.

101 alderdikidetik 350eraino: ahaldun bi

351 alderdikidetik 700eraino: 3 ahaldun

700 alderdikide baino gehiagotik gora: 4 ahaldun

b) Bizkai Buru Batzarrak.

c) Herrialde Epaimahaiak.

d) Bizkaian alderdikidetuta dagozan Euzkadi Buru Batzarreko eta Aberri Epaimahaiko kideak.

e) Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak.

f) Aberri Batzarrean dagozan Bizkaiko ordezkariak.

g) Herrialde erakundeetan herri-aukeraketakoak diran herri-karguetan diharduen alderdikideak, beti be aldez aurretik deialdia eginda, eta erakundeotan diharduen izendapeneko kargudunak.

h) Aberriko eta aberriz kanpoko erakundeetan herri-aukeraketakoak diran herri-karguetan diharduen alderdikideak, beti be aldez aurretik deialdia eginda.

i) Udaletako herri-kargudunen ordezkaritza batek, Herrialde Batzarraren Araudiak erabagitakoaren arabera.

el órgano máximo de la Organización Territorial, y está integrada por:

a) De 1 a 4 apoderados y/o apoderadas por Organización Municipal, elegidos y elegidas de acuerdo con el siguiente sistema de representación proporcional, atenuada y limitada:

Hasta 100 afiliados y afiliadas: 1 apoderado o apoderada

De 101 a 350 afiliados y afiliadas: 2 apoderados o apoderadas

De 351 a 700 afiliados y afiliadas: 3 apoderados o apoderadas

Más de 700 afiliados y afiliadas: 4 apoderados o apoderadas

b) El Bizkai Buru Batzar.

c) El Tribunal Territorial.

d) Los y las miembros del Euzkadi Buru Batzar y del Tribunal Nacional de Justicia afiliados en Bizkaia.

e) Los y las miembros de la Comisión Nacional de Garantías y Control.

f) Los y las representantes de Bizkaia en la Asamblea Nacional.

g) Los afiliados y afiliadas que ejerzan cargos públicos de elección popular en las instituciones territoriales y, siempre que hayan sido previamente convocados, los cargos de designación en las mismas.

h) Los afiliados y afiliadas que ejerzan cargos públicos de elección popular en instituciones nacionales y extranacionales, siempre que hayan sido previamente convocados y convocadas.

i) Una representación de los cargos públicos municipales, de acuerdo con lo que disponga el Reglamento de la Asamblea Territorial.

j) Euzko Gaztediren Erki Kontseiluaren ordezkari bik.

j) Dos representantes del Consejo Territorial de Euzko Gaztedi.

k) Bizkai Buru Batzarraren idazkaritzako arduradun teknikoak, horreek badagoz.

k) Los y las responsables técnicos del Secretariado del Bizkai Buru Batzar, si los o las hubiere.

2. Berba egiteko eta botoa emoteko eskubidea izango dabe a) idatz-zatiko kideak bakarrik. Herrialde Batzarreko gainerako alderdikideak berba egiteko eskubidea izango dabe bakarrik.

2. Tendrán voz y voto los miembros comprendidos en el apartado a). Tendrán solamente voz el resto de los miembros de la Asamblea Territorial.

3. Bizkai Buru Batzarrak erabagi daike beste alderdikide batzuk eta talde edota erakundeen ordezkariak gonbidatu modura joatea, baina hori Batzarrak berretsi beharko dau.

3. El Bizkai Buru Batzar podrá acordar la asistencia a la Asamblea Territorial, en calidad de invitados o invitadas, de otros afiliados y otras afiliadas, así como representantes de colectivos o instituciones, lo que deberá ser ratificado por la Asamblea.

20. art.— Herrialde Batzarrari ondoko hau jagoko:

Art. 20.— Corresponde a la Asamblea Territorial:

a) EAJ-PNVren politika Bizkaian zuzentzea.

a) Dirigir la política de EAJ-PNV en Bizkaia.

b) Uri Erakunde biri edo gehiagori jagoken guztia.

b) Cuanto afecte a dos o más Organizaciones Municipales.

c) Herrialde Estatutuen onespenaren bitartez, Herrialde Erakundearen antolaketa eta jardunbide-araubidea finkatzea.

c) Fijar, a través de la aprobación de los Estatutos Territoriales, la organización y régimen de funcionamiento de la Organización Territorial.

d) Aurreko ekitaldi ekonomikoko kontuak onartzea, Bizkai Buru Batzarrak proposatuta eta ekitaldiko lehen bihilekoan, eta kontuak eta aurrekontua Euzkadi Buru Batzarrari bialtzea.

d) Aprobar las cuentas anuales del ejercicio económico cerrado y el prespuesto para el siguiente ejercicio dentro del primer bimestre del ejercicio, a propuesta del Bizkai Buru Batzar, y remirlas al Euzkadi Buru Batzar.

e) Bizkai Buru Batzarreko kideak eta haren burua, Herrialde Epaimahaiko kideak, baita Aberri Batzarreko ordezkariak bere aukeratzea.

e) Elegir a los y las miembros del Bizkai Buru Batzar y a su presidente o presidenta, a los y las miembros del Tribunal Territorial de Justicia, así como a los y las representantes a la Asamblea Nacional.

f) Batzar Nagusietarako hautagaiak aukeratzea, bai eta ahaldun nagusirako

f) Elegir a los candidatos y candidatas a miembros de las Juntas Generales, así

eta Batzar Nagusien presidenterako hautagaiak bere, Bizkai Buru Batzarrak proposamena egin eta gero.

como los candidatos y candidatas a diputado o diputada general y a presidente o presidenta de las Juntas Generales, a propuesta del Bizkai Buru Batzar.

g) Herrialde Erakundearen proposamena egitea ondoko hautagaioi begira, Batzar bakotxak aukeratu daizan: Euzkadi Buru Batzarreko kideak eta Lehendakaria, Aberri Epaimahaiko kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak, eta aberriko eta aberriz kanpoko herri-kargudunak.

g) Proponer los candidatos y candidatas de la Organización Territorial a miembros del Euzkadi Buru Batzar y a su presidente o presidenta, a miembros del Tribunal Nacional de Justicia y de la Comisión Nacional de Garantías y Control, y a cargos públicos nacionales y extranacionales, para su elección por la Asamblea correspondiente.

h) Bizkai Buru Batzarraren jarduketa politikoa zuzendu, beraren kudeaketa eta hartutako erabagiak bete daitezan kontrolatu, eta, behar izan ezkero, beraren karguaren egikaritzagaitik erantzukizuna eskatzea.

h) Orientar la actuación política del Bizkai Buru Batzar, controlar su gestión y el cumplimiento de los acuerdos adoptados, y exigir, en su caso, responsabilidad por el ejercicio de su cargo.

i) Hartutako erabagiak bete daitezan kontrolatu eta, behar izan ezkero, Aberri Batzarrean berak dituan ordezkariai erantzukizuna eskatzea.

i) Controlar el cumplimiento de los acuerdos adoptados y exigir, en su caso, responsabilidad a sus representantes en la Asamblea Nacional.

j) Herrialde eremuko herri-kargudunen jarduketa politikoa zuzendu eta, behar izan ezkero, erantzukizun politikoa eskatzea.

j) Orientar la actuación política de los cargos públicos de ámbito territorial y exigir, en su caso, responsabilidad política.

k) EAJ-PNVren herrialde organoak eta herrialdeko herri-karguetan diharduen alderdikideak aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

k) Analizar el informe anual presentado por los órganos internos territoriales de EAJ-PNV y por los afiliados o afiliadas que ejerzan cargos públicos territoriales, para su aprobación o, en su caso, rechazo.

l) Bizkai Buru Batzarrak proposatuta, udalerriaren maila gainditzen daben plan, proiektu edota ekimenak herrialdearentzat interes estrategikokoak diralako adierazpena onestea edo ezestea; beti be, aberriko interes estrategikoko plan, proiektu edota ekimenetarako ezarritakoak indarrean dirau, eta horreek agertu beharko dabe urteko planetan edota jardute-egitarauan.

l) Aprobar o rechazar, a propuesta del Bizkai Buru Batzar, la declaración de interés estratégico para Bizkaia de planes, proyectos o iniciativas que trasciendan el nivel estrictamente municipal, sin perjuicio de lo establecido para planes, proyectos o iniciativas de interés estratégico nacional, que deberán figurar en los planes anuales y/o en el programa de actuación.

Horretarako, Bizkai Buru Batzarrak

A tal efecto, el Bizkai Buru Batzar

Herrialde Batzarrari prozedura proposatuko deutso, beronek onesteko, Bizkaiarentzako interes estrategikoa adierazoteko.

propondrá a la Asamblea Territorial, para su aprobación, el procedimiento para efectuar la declaración de interés estratégico para Bizkaia.

m) Herrialde Batzarraren izenean, Aberri Batzarrean eta Batzar Nagusian aurkeztu leitekezan proposamenak onestea.

m) Aprobar, si procede, las propuestas que, en nombre de la Asamblea Territorial, pudieran presentarse en las Asambleas Nacional y General.

n) Uri Erakunde baten edo gehiagoren eta Bizkai Buru Batzarraren artean sortu daitekezan eretxi-ezbardintasunak ebaztea.

n) Resolver las discrepancias que se susciten entre una o varias Organizaciones Municipales y el Bizkai Buru Batzar.

o) Buru Batzarren Artekoan izan daitekezan gatazkak ebaztea, Aberri Estatutuen 80.3 artikuluan erabagitakoa betez, baldin eta ikututako Uri Erakundeetako batek edo Bizkai Buru Batzarrak horrela eskatzen badau.

o) Resolver los conflictos que se susciten en Interjuntas en aplicación de lo dispuesto en el artículo 80.3 de los Estatutos Nacionales, cuando lo solicite una de las Organizaciones Municipales afectadas o el Bizkai Buru Batzar.

p) Urtero bi kontu-aztertzaile eta bi ordezko aukeratzea eta honeek jagokon Bizkai Buru Batzarrak aurkeztutako kontuen egokitasunaz eta barne kontrolerako sistemaz informauko dabe. Egingo daben txosten hau Bizkai Buru Batzarraren proposamenez onartzeko aurkeztuko diran urteko kontuakaz batera aurkeztuako da. Hori guztia Herrialde Estatutu honeen 62. Artikuluan esandakoagaz bat eginik gauzatuko da.

p) Elegir anualememente a dos censores o censoras de cuentas y dos suplentes, que informarán sobre la ideoneidad de las cuentas presentadas por el Bizkai Buru Batzar y sobre el sistema de control interno. Su informe se acompañará a las cuentas anuales del ejercicio sometido a aprobación a propuesta del Bizkai Buru Batzar. Todo ello se llevará a cabo se llevará a cabo de conformidad con los dispuesto en el artículo 62 de los presentes Estatutos Territoriales.

21. art.— 1. Herrialde Batzarrak hartuko ditu erabagiak, bozkatzeko eskubidea daben bertako ahaldunak emondako botoen gehiengo soilaren bitartez.

Art. 21.— 1. La Asamblea Territorial adoptará sus acuerdos por mayoría simple de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas presentes con derecho a voto.

2. Halanda be, bozkatzeko eskubidea daben bertako ahaldunak emondako botoen gehiengo osoa behar izango da ondoko honeetarako:

2. No obstante, se requerirá una mayoría absoluta de votos emitidos por los apoderados y apoderadas presentes con derecho a voto para:

a) Alderdi barruko kargudunak, eta herri-karguetarako hautagaiak aukeratzeko;

a) la elección de cargos internos, y candidatos y candidatas a cargos públicos;

b) Estatutu honeetako 22 a) eta c)

b) la aprobación de los informes anuales

artikuluak aitatzen dituan urteko txostenak onesteko;

a que hace referencia el artículo 22 a) y c) de los presentes Estatutos;

c) EAJ-PNVren Aberri eta Herrialde Estatutuak onetsi eta aldarazoteko.

c) la aprobación y reforma de los Estatutos Nacionales y Territoriales de EAJ-PNV.

3. Hartutako erabagiak Uri Erakundeai jakinarazoko jakez, batzarra egin eta aste beteko epean.

3. Los acuerdos adoptados serán comunicados a las Organizaciones Municipales en el plazo de una semana a partir de su celebración.

22. art.— Herrialde Batzarra ohiko bilkuran batzartuko da, urtean behin, nahitaez, lehenengo hiru bihilekoaren barruan, eta Ohiko Aberri Batzarraren aurretik, honako helburu honeekaz:

Art. 22.— La Asamblea Territorial se reunirá en sesión ordinaria, preceptivamente una vez al año, dentro del primer bimestre, y con anterioridad a la Asamblea Nacional Ordinaria, con objeto de:

a) EAJ-PNVren herrialde organoak eta herrialdeko herri-aukeraketako herri-karguetan diharduen alderdikideak aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

a) Analizar el informe anual presentado por los órganos territoriales de EAJ-PNV y por los afiliados y las afiliadas que ejerzan cargos públicos territoriales de elección popular, para su aprobación o, en su caso, rechazo.

Aberri Estatutuetako 81. artikuluaren arabera, Bizkai Buru Batzarrak emongo deutso Herrialde Batzarrari Bilboko udal herri-kargudunen kudeaketaren barri, lurralde politikari eragiten deutson neurrian.

De acuerdo con el artículo 81 de los Estatutos Nacionales, la Asamblea Territorial será informada por el Bizkai Buru Batzar de la gestión de los cargos públicos municipales en Bilbao, en lo que se refiere a su incidencia en la política territorial.

b) Bizkai Buru Batzarrak proposatuta, Herrialde Erakundearen estrategia politikoa finkatzea, urtebeteko hurrengo epealdirako.

b) Establecer, a propuesta previa del Bizkai Buru Batzar, la estrategia política de la Organización Territorial para el próximo período de un año.

c) Bizkai Buru Batzarrak aurkeztu beharreko Herrialde Erakundearen urteko aurrekontuak eta kontuak onestea, kontu-aztertzaileen Batzordeak eginiko txostenarekin batera.

c) Aprobar los presupuestos y cuentas anuales de la Organización Territorial que debe presentar el Bizkai Buru Batzar, acompañados del preceptivo informe de la Comisión de censores y censoras de cuentas.

d) Bizkai Buru Batzarrak edota Uri Erakundeetarik edozeinek egiten dituan proposamenak jakitea.

d) Conocer las propuestas que formulen el Bizkai Buru Batzar o cualquiera de las Organizaciones Municipales.

e) Kontu-aztertzaileak izendatzea.

e) Designar a los censores o las censoras

de cuentas.

f) 4 urtean behin, herrialde eremuko Alderdi barruko karguak aukeratzea.

f) Elegir, cada 4 años, a los cargos internos de ámbito territorial.

23. art.— 1. Herrialde Batzarra ezohiko bilkuran batzartuko da, urteko edozein egunetan, deialdia egiten bada:

Art. 23.— 1. La Asamblea Territorial se reunirá en sesión extraordinaria, que podrá celebrarse en cualquier fecha del año, convocada:

a) Herrialde Batzarrak berak erabagita.

a) Por decisión de la propia Asamblea Territorial.

b) Bizkai Buru Batzarraren ekimenez.

b) Por iniciativa del Bizkai Buru Batzar.

c) Bizkaiko Uri Erakundeen edo alderdikideen ehuneko 15ek izenpetutako eskari batez; izenpetzaileok, eskaria egiten dabenean, aztertu beharreko gaien zerrenda edo aztergaien zerrendaren proposamena aurkeztu beharko dabe.

c) A petición suscrita por el quince por ciento o más de las Organizaciones Municipales o de los afiliados y afiliadas de Bizkaia, quienes deberán aportar, en el momento de la petición, la relación de temas a tratar o propuesta de orden del día.

2. Ezohiko Herrialde Batzarra egingo da, ondoren emongo diran daten ondoko 30 egun naturalen barruan:

2. La Asamblea Territorial Extraordinaria se celebrará dentro de los 30 días naturales siguientes a:

a) Deialdia egiteko eskaria aurkezten dan datatik zenbatuta.

a) La fecha de presentación de la petición de convocatoria.

b) Aberri Batzarra, derrigor, egiten dan datatik zenbatuta, ordezkariak euren kudeaketaren gaineko kontuak emon daiezan.

b) La celebración de cada Asamblea Nacional, con carácter obligatorio, al objeto de que los y las representantes rindan cuentas de su gestión.

3. Epealdi horren lehenengo hamabost egunen barruan egiten ez bada Ezohiko Herrialde Batzarrerako deialdia, eskatzaileak Herrialde Epaimahaiari jarri deikeoe errekurtsoa, eta honek Batzarrerako deialdia egingo dau, errekurtsoa aurkezten dan egunetik zenbatu beharreko hogei eguneko epealdiaren barruan egiteko Batzarra.

3. Caso de no convocarse dentro de los quince primeros días de dicho periodo, cabe recurso ante el Tribunal Territorial de Justicia, quien convocará la Asamblea para su celebración dentro de un periodo de veinte días a contar desde la fecha de presentación del recurso.

4. Herrialde Batzarra balioz eratuko da, lehenengo deialdian, ha osotzen daben Uri Erakundeen gehiengo osoa ordezkatuta badago, eta, bigarren deialdian, ordu erdi geroago, edozein dala ordezkatuta dagozan Uri Erakundeen

4. La Asamblea Territorial quedará válidamente constituida, en primera convocatoria, si está representada la mayoría absoluta de las Organizaciones Municipales que la integran, y, en segunda convocatoria, media hora más tarde, cualquiera que sea el número de

kopurua.

Organizaciones Municipales representadas.

24. art.— 1. Batzarrak, Ohikoak nahiz Ezohikoak, gitxienez 15 egun aurretik deitu beharko ditu Herrialde Batzarraren Mahaiak.

Art. 24.— 1. Las Asambleas, tanto las Ordinarias como las Extraordinarias, serán convocadas por la Mesa de la Asamblea Territorial con 15 días naturales de antelación como mínimo.

2. Halanda be, Herrialde Batzarraren Mahaiak edo Bizkai Buru Batzarrak premina eta larritasun handiko egoera dagoala uste badabe, Ezohiko Herrialde Batzarrerako deialdia egingo da, adierazotako epeai kasurik egin barik. Preminazko egoera hori Batzarrak berronetsi beharko dau aurretiazko gai legez.

2. No obstante, cuando la Mesa de la Asamblea Territorial o el Bizkai Buru Batzar apreciara circunstancias de especial urgencia y gravedad, se convocará Asamblea Territorial Extraordinaria sin atender a los plazos indicados. La valoración de la urgencia deberá ser ratificada por la Asamblea como cuestión previa.

3. Ohiko Herrialde Batzarra deitzen ez bada, bera martiaren azkeneko zapatuan batzartuko da beste barik, aurreko Herrialde Batzarra egin zan leku eta ordu beretan.

3. En caso de no ser convocada la Asamblea Territorial Ordinaria, esta se reunirá automáticamente el último sábado de marzo en el mismo lugar y hora en que se celebró la anterior Asamblea Territorial.

25. art.— Herrialde Batzarrari jagoko bere araudia onestea; izan be, araudi horrek haren barru-antolaketa eta jardunbide-araubidea zehaztuko ditu. Araudi hori indarrean jarteko, beharrezkoa izango da Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak hari oneretxia emotea.

Art. 25.— Corresponde a la Asamblea Territorial la aprobación de su propio Reglamento, el cual determinará su organización interna y régimen de funcionamiento. Para su entrada en vigor, dicho Reglamento requerirá el visto bueno de la Comisión Nacional de Garantías y Control.

# IV. TITULUA ALDERDIKIDEAI ERETXIA ESKATZEA

# TÍTULO IV DE LA CONSULTA A LAS BASES

26. art.— Uri Erakundeak nahitaez deitu eta egin beharko ditue Uri Batzarrak, alderdikideai eretxia eskatzea beharrezkoa daben gaien inguruan eztabaidatu eta hareek erabagiteko, bai Aberri Estatutuetan ezarritako balizkoetan, bai estatutu honeetan ezarritako balizkoetan.

Art. 26.— Las Organizaciones Municipales deberán convocar y celebrar preceptivamente Asambleas Municipales para debatir y decidir sobre cualquier cuestión objeto de consulta a las bases, tanto en los supuestos contemplados en los Estatutos Nacionales, como en los previstos en los presentes Estatutos.

27. art.— 1. Aberri Batzarrean erabagiak hartzeko, alderdikideai eretxia eskatu beharko jake, nahitaez:

Art. 27.— 1. Para la toma de decisiones en la Asamblea Territorial, la consulta a las bases será preceptiva:

| | |
|---|---|
| a) Herrialde eremuko Alderdi barruko kargudunak eta herri-karguetarako hautagaiak aukeratzean, estatutu honeetan ezarritako prozeduraren arabera; | a) en la elección de cargos internos y de candidatos y candidatas a cargos públicos de ámbito territorial, según el procedimiento establecido en los presentes Estatutos; |
| b) Herrialde Estatutuak aldarazotean; | b) en la modificación de los Estatutos Territoriales; |
| c) Bizkai Buru Batzarreko kideentzat bateraezintasuna kentzea planteatzen danean; | c) cuando se plantee el levantamiento de incompatibilidades para miembros del Bizkai Buru Batzar; |
| d) Herrialde Batzarra osotu eta bozkatzeko eskubidea daben bertako ahaldunen herenak edo Bizkai Buru Batzarrak hala erabagiten dauenean; | d) cuando así lo acuerde un tercio de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas presentes con derecho a voto de la Asamblea Territorial o el Bizkai Buru Batzar; |
| e) Herrialde Erakunde bik edo Uri Erakundeen ehuneko 15ek hala eskatzen dabenean. | e) cuando lo solicite el quince por ciento o más de las Organizaciones Municipales o de los afiliados y afiliadas de Bizkaia. |
| Uri Erakundeak Herrialde Batzarrean dituen ahaldunak ezin izango dabe botorik emon Herrialde Batzarrean, aurretiaz ez bada Urietako Batzar eskudunetan eskuartean darabilen gaiaz erabagirik hartu. | Los apoderados y apoderadas de las Organizaciones Municipales en la Asamblea Territorial no tendrán derecho a ejercer su voto en dicha asamblea, si previamente no se hubiera decidido sobre la cuestión objeto de la consulta en las correspondientes Asambleas Municipales. |
| 2. 1 a) eta c) puntuan aitatu dira alderdikideai eretxia eskatzeko prozesuak; bada, prozesu horreetan aginduzko manamentua dagoala ulertuko da. Horreri jagokonez, aginduzko manamentutzat joko da Batzar eskudunetan lehen bozketan agertzen dan borondatea bere horretan emotea. Halanda be, Batzar eskudunak berenberegi emon deikiee baimena euren ordezkariai, osotasunean edo zati baten, jarrera ezbardinak babesteko, aukeraketak emoten dituan aukeren esparruaren barruan. | 2. En los procesos de consulta de bases citados en el punto 1 a) y c) se presumirá la existencia de mandato imperativo. A estos efectos se entenderá como mandato imperativo la traslación exacta de la voluntad de las asambleas correspondientes en la primera votación que se celebre. No obstante, las Asambleas correspondientes podrán autorizar expresamente a sus representantes, en todo o en parte, a la defensa de posiciones diferentes dentro del marco de posibilidades que permita la elección. |
| Horretarako, Uri Erakundeak Herrialde Batzarraren idazkaritzari egiaztagiria aurkeztuko deutso, Batzarra egin dala ziurtatzeko, eta berean azalduko dira | A tal fin, la Organización Municipal presentará a la secretaría de la Asamblea Territorial una certificación de la realización de la Asamblea |

berean hartu diran erabagiak, beti be aginduzko manamentua beharrezkoa daben gaiai jagoken lez.

correspondiente con los acuerdos adoptados en la misma referente a las cuestiones tratadas que estén sometidas a mandato imperativo.

3. Erabagiak hartzerakoan, artikulu honetako 1. puntuko b), d) eta e) idatz-zatiak aitatzen dituen gaietan, Urietako Batzarren erabagiak derrigortuko ditue ahaldunak, izaera lotesleagaz, eurak jasotako erispidetik hurren dagozan jarreren alde egiteko, eztabaidak emoten dituan aukeren esparruaren barruan.

3. En la toma de decisiones en los temas a que se refieren los apartados b), d) y e) del punto 1 de este artículo, los acuerdos de las Asambleas Municipales obligarán a los apoderados y apoderadas con carácter vinculante a la defensa de las posiciones más próximas al criterio recibido, dentro del marco de posibilidades que el debate permita.

# V. TITULUA BURU BATZARRAK

# TÍTULO V DE LAS EJECUTIVAS

## *I. kapitulua.— Uri Buru Batzarrak*

## *Capítulo I.—De las Juntas Municipales*

28. art.— Uri Buru Batzarrak Uri Erakundeen organo betearazleak dira. Uri Estatutuak zehaztu edo, horreek izan ezean, Uri Batzarrak erabagiten dauen beste kidek osotuko ditue Uri Buru Batzarrak; beti be, ezin izango dabe sekula hiru baino gitxiago izan, hau da, lehendakari, idazkari eta diruzain legez jardungo dabenak.

Art. 28.— Las Juntas Municipales, órganos ejecutivos de las Organizaciones Municipales, se compondrán de cuantos miembros determinen los Estatutos Municipales o, en su defecto, acuerde la Asamblea Municipal, no pudiendo ser menos de tres, que actúen de presidente o presidenta, secretario o secretaria y tesorero o tesorera.

29. art.— 1. Uri Batzarrak bi urtetik behin aukeratuko ditu Uri Buru Batzarreko burukideak urtearen lehenengo bihilekoan, Aberri Estatutuetako 90. artikuluaren 1, 2, 3 eta 4. idatz-zatietan erabagitakoaren arabera.

Art. 29.— 1. La Asamblea Municipal elegirá cada dos años, dentro del primer bimestre a los miembros de la Junta Municipal, siempre conforme a lo dispuesto en los apartados 1, 2, 3 y 4 del artículo 90 de los Estatutos Nacionales.

Uri Estatutuetan berenberegi arautuko da, besteak beste, Uri Buru Batzarreko lehendakaria aukeratzeko prozedura.

En los Estatutos Municipales se regulará en cada caso expresamente, entre otros extremos, el procedimiento de elección de presidente o presidenta de la Junta Municipal.

2. Uri Buru Batzarreko burukidea izateko, gitxienez, alderdikide legez urte biko antxinakotasuna euki behar da.

2. Para ser elegido o elegida miembro de la Junta Municipal se exigirán, como mínimo, dos años de antigüedad en la afiliación.

3. Uri Buru Batzarra bi urtetik behin

3. La Junta Municipal se renovará cada 2

barriztatuko da, lehenengo bihilabetekoaren barruan, haren estatutuak erabagiten dabenaren arabera.

años, dentro del primer bimestre, según dispongan sus Estatutos.

4. Norbera behin bakarrik izan daiteke berraukeratua, eta agintaldi batek igaro beharko dau barriro aukeratua izan ahal izateko. Halanda be, Uri Batzarrak berenberegi eta banan-banan egin daikez salbuespenak berraukeratzeari jarten jakon muga hau aplikatzerakoan.

4. La reelección solo podrá efectuarse por una sola vez, debiendo transcurrir un mandato para acceder a una nueva elección. No obstante, la Asamblea Municipal podrá, de manera expresa e individualizada, excepcionar la aplicación de esta limitación a la reelección.

5. Uri Buru Batzarreko burukideak, bera proposatzen dabenean barriro aukeratua izateko, uko egin deikeo hautagai-izendapenaren onarpenari, Uri Buru Batzarrean, Alderdi barruko hauteskunde-prozesuaren bigarren txandan bozkatuak izan daitekezan hautagaien zerrenda gertetako unean.

5. El miembro de la Junta Municipal que fuere propuesto para su reelección podrá excusar la aceptación de la nominación como candidato o candidata ante la Junta Municipal en la fase de elaboración de la lista de candidatos y candidatas susceptibles de ser votados y votadas en la segunda vuelta del proceso electoral interno.

Era berean, Alderdi barruko kargua edo agintea dauenak uko egin deikeo beste kargu bat onartzeari, aurreko paragrafoan ezarritako prozedura bera betez.

Asimismo, quien estuviere ejerciendo un cargo o mandato interno podrá excusar la aceptación de uno nuevo siguiendo el procedimiento establecido en el párrafo anterior.

30. art.— Uri Buru Batzarrari ondoko hau jagoko:

Art. 30.— Corresponde a la Junta Municipal:

a) Uri Batzarraren erabagiak betearazotea, eta, Uri Batzarra batzartuta ez dagoanean, Uri Erakunde bakotxaren eremuan EAJ-PNVren zuzendaritza politikoa egikaritzea, Uri Batzarrari guztiaren barri emonaz eta Bizkai Buru Batzarrak edota Euzkadi Buru Batzarrak euren eskumenen eremuan hartutako erabagiak errespetatuz.

a) Ejecutar los acuerdos adoptados por su Asamblea Municipal, y, en tanto esta no se encuentre reunida, ejercer la dirección política de EAJ-PNV en el ámbito de la Organización Municipal, manteniendo informada a la Asamblea Municipal y respetando los acuerdos que adopten el Bizkai Buru Batzar o el Euzkadi Buru Batzar en el ámbito de sus competencias.

b) Bizkai Buru Batzarraren erabagiak betearazotea, horrek ahalmen hori eskuordetzen deutsonean.

b) Ejecutar los acuerdos del Bizkai Buru Batzar cuando este le delegue tal facultad.

c) Jarduteko urteko egitaraua Uri Batzarrari aurkeztea.

c) Presentar a la Asamblea Municipal su programa anual de actuación.

d) Gobernu akordioak eta izaera egonkorreko itunak onestea edota

d) La aprobación de los acuerdos de gobierno y pactos de carácter estable o

horrelako akordioak hausteko erabagiak hartzea, berenberegi bere eremuko udal erakundeai jagoken lez, eta beti be Bizkai Buru Batzarrari aldez aurretik esanda eta azken honek hori bere eskumeneko legez eskatzen ez badau. Horren guztiaren barri, albait arinen emongo deutso Uri Batzarrari.

las decisiones de ruptura de acuerdos de esta naturaleza, cuando afecten en exclusiva a instituciones municipales de su ámbito, previa información sobre los mismos al Bizkai Buru Batzar, y siempre que este no los demande como de su competencia. De ello informará a la Asamblea Municipal a la mayor brevedad posible.

e) Gidalerro politikoak finkatzea, eta udalerrietako herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea, baita izendapeneko kargudunak bere, hareen izendapenean, zuzenean edo zeharka, parte hartzen izan dauenean. Eginkizun horreek Buru Batzarren Artekoan dituan ordezkarien bitartez beteko ditu, Buru Batzarren Artekoa badago udalerrian, beti be, Uri Batzarrak emoniko jarraibideen arabera.

e) Marcar las directrices políticas, orientar, apoyar y controlar a los cargos públicos municipales de su ámbito, así como a los cargos de designación en cuyo nombramiento haya participado de forma directa o indirecta. Estas funciones las ejercerá a través de sus representantes en Interjuntas, en el caso de que existiera en el municipio, de acuerdo con las directrices marcadas por la Asamblea Municipal.

f) Ohiko zein Ezohiko Uri Batzarretarako deialdia egitea.

f) Convocar las Asambleas Municipales, tanto las Ordinarias como las Extraordinarias.

g) Uri Batzarrari aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua ekitaldiko lehen hilabetearen barruan aurkeztea, onartu daizan; eta Bizkai Buru Batzarrari kontu aztertzaileraren edo aztertzaileen txostenagaz batera bialtzea, kontuen baterakuntza egiteko.

g) Someter a la aprobación de la Asamblea Municipal las cuentas anuales del ejercicio económico cerrado y el presupuesto para el asiguiente ejercicio dentro del primer mes del ejercicio y remitirlas al Bizkai buru batzar para su consolidación, acompañadas del informdel censor o censora o de los censores o censoras de cuentas.

h) Uri Estatutuetan berenberegi eratxikitzen jakon beste edozein eginkizun, beti be, Aberri Estatutuetan eta Herrialdekoetan ezarritakoaren kalte barik.

h) Cualquier otra función que se le atribuya de forma expresa en los Estatutos Municipales, sin perjuicio de lo establecido en los Estatutos Nacionales y Territoriales.

31. art.— Agintaldia amaitutakoan, Uri Buru Batzarreko burukideak bilera bat egingo dabe Uri Buru Batzar barriagaz, eginkizunak pasetako.

Art. 31.— Al finalizar su mandato los miembros de la Junta Municipal celebrarán una reunión con la nueva ejecutiva de cara a realizar el traspaso de funciones.

## *II. kapitulua.— Herrialde Buru Batzarra edo BIZKAI BURU BATZARRA*

## *Capítulo II.— Del Consejo Territorial o BIZKAI BURU BATZAR*

32. art.— Herrialde Buru Batzarra edo BIZKAI BURU BATZARRA da herrialdeko organo betearazlea. Beraren eskumenen eremuan hartutako erabagiak derrigor bete behar ditue Herrialde Erakundeko alderdikideak eta gainerako uri organoak.

Art. 32.— El Consejo Territorial o BIZKAI BURU BATZAR es el órgano ejecutivo territorial. En el ámbito de sus competencias, sus acuerdos son de obligado cumplimiento para todos los afiliados y afiliadas y órganos municipales de la Organización Territorial.

33. art.— 1. Bizkai Buru Batzarra ondoko honeek osotzen dabe:

Art. 33.— 1. El Bizkai Buru Batzar está integrado por:

a) Bizkai Buru Batzarreko buruak, aurretik eta banatuta aukeratuta,

a) el presidente o la presidenta del Bizkai Buru Batzar, elegido o elegida de manera previa y separada,

b) hamabi burukidek, Uri Batzarrak proposatutako hautagaien artetik Herrialde Batzarrak aukeratuta.

b) doce burukides, elegidos y elegidas directamente por la Asamblea Territorial, de entre los candidatos propuestos y las candidatas propuestas por las Asambleas Municipales.

2. Bizkai Buru Batzarreko buruak euskalduna izan behar dau. Era berean, gainerako burukideetarik seik, gitxienez, euskaldunak izan behar dabe.

2. El presidente o la presidenta del Bizkai Buru Batzar deberá ser euskaldun. Asimismo, al menos seis de los y las restantes burukides deberán ser euskaldunes.

3. Bizkai Buru Batzarreko kideak gitxienez lau urte egon behar dabe alderdikideturik.

3. Para ser miembro del Bizkai Buru Batzar es necesario llevar afiliado o afiliada, al menos, cuatro años.

4. Bizkai Buru Batzarreko burukideak agintaldian lau urtean zehar iraungo dabe.

4. Los miembros del Bizkai Buru Batzar desempeñarán su mandato durante cuatro años.

5. Norbera behin bakarrik izan daiteke berraukeratua, eta agintaldi batek igaro beharko dau barriro aukeratua izan ahal izateko. Halanda be, Batzar eskudunak berenberegi eta banan-banan egin daikez salbuespenak berraukeratzeari jarten jakon muga hau aplikatzerakoan.

5. La reelección solo podrá efectuarse por una sola vez, debiendo transcurrir un mandato para acceder a una nueva elección. No obstante, la Asamblea competente para la elección de tales cargos podrá, de manera expresa e individualizada, excepcionar la aplicación de esta limitación a la reelección.

| | |
|---|---|
| 34. art.— Agintaldia amaitutakoan, Bizkai Buru Batzarreko burukideak bilera bat egingo dabe Bizkai Buru Batzar barriagaz, eginkizunak pasetako. | Art. 34.— Al finalizar su mandato los miembros del Bizkai Buru Batzar celebrarán una reunión con la nueva ejecutiva para realizar el traspaso de funciones. |
| 35. art.— 1. Bizkai Buru Batzarrari ondoko hau jagoko: | Art. 35.— 1. Corresponde al Bizkai Buru Batzar: |
| a) Herrialde Batzarraren erabagiak betearazotea, eta, Herrialde Batzarra batzartuta ez dagoanean, Herrialde Erakundearen zuzendaritza politikoa egikaritzea, Herrialde Batzarrari guztiaren barri emonaz eta Euzkadi Buru Batzarrak bere eskumenen eremuan hartutako erabagiak errespetatuz. | a) Ejecutar los acuerdos adoptados por la Asamblea Territorial y, en tanto esta no se encuentre reunida, ejercer la dirección política de la Organización Territorial, manteniendo informada a la Asamblea Territorial, y respetando los acuerdos que adopte el Euzkadi Buru Batzar en el ámbito de sus competencias. |
| b) Euzkadi Buru Batzarraren erabagiak betearazotea, horrek ahalmen hori eskuordetzen deutsonean. | b) Ejecutar los acuerdos del Euzkadi Buru Batzar cuando este le delegue tal facultad. |
| c) Agintaldiak iraungo dauen epealdirako Bizkai Buru Batzarraren jardute-egitaraua Herrialde Batzarrari aurkeztea, bai eta urteroko jardute-planak bere. | c) Presentar a la Asamblea Territorial el programa de actuación del Bizkai Buru Batzar para el periodo de su mandato, así como, cada año, los correspondientes planes anuales de actuación. |
| d) Gobernu akordioak eta izaera egonkorreko itun politikoak onestea, honako honeetan eragina dabenean: | d) Aprobar los acuerdos de gobierno y pactos políticos de carácter estable, cuando afecten en exclusiva a: |
| – bere eremuko herrialde erakundeetan, lehenago eurai buruzko informazinoa Euzkadi Buru Batzarrean emonaz, eta beti be azken honek horreek bere eskumeneko legez eskatzen ez baditu; | – Instituciones territoriales de su ámbito, previa información sobre los mismos en el seno del Euzkadi Buru Batzar, y siempre que este no los demande como de su competencia; |
| – Bizkaiko Erakundeko udal erakunde bitan edo gehiagotan; | – dos o más instituciones municipales de la Organización de Bizkaia, |
| eta horreen barri albait arinen emongo jako Herrialde Batzarrari. | de los cuales informará a la Asamblea Territorial a la mayor brevedad posible. |
| e) Bizkaiarentzat interes estrategikokoak diralako adierazpena proposatzea, udalerriaren maila gainditzen daben plan, proiektu edota ekimenetarako, aberriarentzako interes estrategikoko plan, proiektu eta ekimenetarako ezarritakoaren kalte barik. | e) Proponer la declaración de interés estratégico para Bizkaia de planes, proyectos o iniciativas que trasciendan el nivel estrictamente municipal, sin perjuicio de lo establecido para planes, proyectos o iniciativas de interés estratégico nacional. |

f) Gidalerro politikoak finkatzea, eta bere eremuan jarduten daben herrialdeko herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea, baita izendapeneko kargudunak bere, hareen izendapenean, zuzenean edo zeharka, parte hartzen izan dabenean.

f) Marcar las directrices políticas, orientar, apoyar y controlar a los cargos públicos territoriales que actúen en su ámbito, así como a los cargos de designación en cuyo nombramiento haya participado de forma directa o indirecta.

g) Gidalerro politikoak finkatzea, eta udalerrietako herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea euren karguagaitik udalez gaindiko eremuan jarduten dabenean.

g) Marcar las directrices políticas, orientar y apoyar a los cargos públicos municipales cuando actúen, por razón de su cargo, en un ámbito superior al municipal.

h) Uri Erakundeen artean azaldu daitekezan desadostasunak ebaztea.

h) Resolver las discrepancias que se susciten entre Organizaciones Municipales.

i) Herrialde Batzarrari aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrkontua ekitaldiko lehen bihilekoaren barruan aurkeztea, onartu daizan; eta Euzkadi Buru Batzarrari Herrialdeko kontu aztertzailearen edo aztertzaileen txostenagaz batera bialtzea, kontuen baterakuntza egiteko.

i) Someter a la aprobación de la Asamblea Territorial las cuentas anuales del ejercicio económico cerrado y el presupuesto para el siguiente ejercicio dentro del primer bimestre del ejercicio y remitirlas al EBB para su consolidación acompañadas del informe preceptivo de los censores o censoras de cuentas territoriales.

j) Aberri Batzarrari proposamenak eroatea.

j) Elevar propuestas a la Asamblea Nacional.

k) Estatutu honeek eratxikitzen deutsiezan gainerako eginkizun guztiak.

k) Todas aquellas otras funciones que le atribuyen los presentes Estatutos.

36. art.— Bizkai Buru Batzarrak bere burua zuzenduko dau, berak onetsitako araudiaren bidez, eta Herrialde Batzarrari eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari emongo deutse haren barri.

Art. 36.— El Bizkai Buru Batzar se regirá por un Reglamento aprobado por él mismo, del que dará cuenta a la Asamblea Territorial y a la Comisión Nacional de Garantías y Control.

# VI. TITULUA EPAILE ETA EPAIMAHAIAK

# TÍTULO VI DE LOS JUECES, JUEZAS Y TRIBUNALES

37. art.— 1. Eginkizun judiziala egikarituko dabe Epaile eta Epaimahaiek, Batzar eskudunak aukeratuta. Horreek guztiz independenteak izango dira beren eginkizunen egikaritzan.

Art. 37.— 1. La función judicial será ejercida por Jueces, Juezas y Tribunales elegidos por las Asambleas correspondientes. Gozarán de total independencia en el ejercicio de sus funciones.

2. Epaile eta Epaimahaiek eurei jagoken Batzarrean azalduko dabe euren zuribidea, baina euren kargua prestutasunez bete dabela adierazoteko bakarrik, ez, ostera, euren ebazpenen eukia aztertzeko, azken horreek aitatu baino egingo ez dabe-eta.

2. Los Jueces, Juezas o Tribunales presentarán su descargo ante la Asamblea de nivel correspondiente sólo en lo que se refiere al diligente desempeño de sus cargos, y no al contenido de sus resoluciones, de las cuales se limitarán a informar.

38. art.— Epaile eta Epaimahaiak izango ditue:

Art. 38.— Los Jueces, Juezas y Tribunales tienen atribuidas:

a) diziplinazko eginkizuna, eta

a) la función disciplinaria, y

b) EAJ-PNVren organoak, arauzko baldintzak bete barik edo hareen eskumenetatik kanpo, hartutako erabagien aurkako inpugnazinoak ebaztea.

b) la resolución de impugnaciones contra acuerdos de los órganos de EAJ-PNV adoptados sin reunir las condiciones reglamentarias.

39. art.— Diziplinazko eginkizunean Epaile eta Epaimahaiek kontuan hartuko ditue Aberri Epaimahaiak emoniko ebazpenak.

Art. 39.— En la función disciplinaria los Jueces, Juezas y Tribunales tendrán presentes las resoluciones dictadas por el Tribunal Nacional de Justicia.

## *1. kapitulua.— Uri epaile eta epaimahaiak*

## *Capítulo I.—De los jueces, juezas y tribunales municipales*

40. art.— Uri Erakunde bakotxean Uri Epaile edo Epaimahaia egongo da, eta hori osotuko dabe bi urteko antxinakotasuneko alderdikidetza daben hiru alderdikidek; Uri Batzarrak hirurok aukeratuko ditu urte biko eperako.

Art. 40.— En cada Organización Municipal habrá un Juez, Jueza o Tribunal Municipal, formado por tres afiliados o afiliadas, con al menos dos años de antigüedad en la afiliación, elegidos por la Asamblea Municipal para un periodo de dos años.

100 alderdikiderainoko Uri Erakundeetan aukerakoa izango da Epailea izatea. 100 alderdikide baino gehiagotik 300erainokoetan aukerakoa izango da Epailea edo Epaimahaia izatea. 300 alderdikide baino gehiagoko Uri Erakundeetan nahitaezkoa izango da Uri Epaimahaia.

En las Organizaciones Municipales de hasta 100 afiliados y afiliadas, será potestativo el Juez o Jueza. En las de más de 100 y hasta 300 afiliados y afiliadas, se podrá optar por contar bien con un Juez o Jueza, o bien con un Tribunal. En las de más de 300 afiliados y afiliadas será preceptivo el Tribunal Municipal.

41. art.— 1. Uri Epaile edo Epaimahaiek beren Uri Erakundearen mailan egikaritzen dabe diziplinazko eginkizuna.

Art. 41.— 1. Los Jueces, Juezas o Tribunales Municipales ejercen la función disciplinaria a nivel de su Organización Municipal.

Hareek ebazten ditue euren Uri

Entienden de toda denuncia contra

Erakundeko edozein alderdikideren aurkako salaketaren aurka, eta Uri Buru Batzarrak zein Uri Batzarrak hartutako erabagien aurka aurkeztutako inpugnazinoak.

cualquiera de los afiliados o afiliadas de su Organización Municipal y de las impugnaciones contra los acuerdos de la Junta o de la Asamblea Municipal.

2. Uri Epaile edo Epaimahaiaren epaitza, Herrialde Epaimahaiaren aurrera eroan ahal izango da, hogei egun balioduneko epean, epaia jakinarazoten dan egunetik zenbatuta.

2. Contra el fallo del Juez, Jueza o Tribunal Municipal se podrá apelar al Tribunal Territorial de Justicia en el plazo de veinte días hábiles, contabilizados a partir de la fecha de notificación de la sentencia.

## *II. kapitulua.— Herrialde Epaimahaia*

## *Capítulo II.—Del Tribunal Territorial de Justicia*

42. artikulua.— Herrialde Epaimahaia osotuko dabe hiru urteko antxinakotasuneko alderdikidetza, gitxienez, daukien hiru alderdikidek; Herrialde Batzarrak hirurok aukeratuko ditu lau urteko eperako.

Art. 42.— El Tribunal Territorial de Justicia está compuesto por tres afiliados o afiliadas, con al menos tres años de antigüedad en la afiliación, elegidos por la Asamblea Territorial para un periodo de cuatro años.

Haren antolaketa eta jardunbide-araubidea Herrialde Batzarrak arautuko ditu.

Su organización y régimen de funcionamiento serán regulados por la Asamblea Territorial.

43. art.— Herrialde Epaimahaiaren ardurakoak izango dira:

Art. 43.— El Tribunal Territorial entiende:

1. Lehen auzialdian:

1. En primera instancia:

a) Uri Buru Batzarren arteko salaketak, edo Bizkai Buru Batzarretako kideak beren kargua egikaritzean egiten dituen jarduketen aurka aurkeztutako salaketak;

a) De las denuncias entre Juntas Municipales o contra actuaciones de los miembros del Bizkai Buru Batzar en el desempeño de su cargo;

b) Uri Epaileen edo Uri Epaimahaiko kideen aurkako salaketak, hareek euren kargua egikaritzean;

b) De las denuncias contra Jueces, Juezas o miembros de cualquier Tribunal Municipal en el desempeño de su cargo;

c) Uri Epailerik edo Uri Epaimahairik ez daben Uri Erakundeetan azaltzen diran auziak;

c) De todas las cuestiones que se planteen en las Organizaciones carentes de Juez, Jueza o Tribunal Municipal;

d) Bizkai Buru Batzarrak edo Herrialde Batzarrak hartutako erabagien aurkako inpugnazinoak.

d) De las impugnaciones contra acuerdos del Bizkai Buru Batzar o de la Asamblea Territorial.

2. Bigarren auzialdian, Uri Epaile edo

2. En segunda instancia de las

Epaimahaiak emoniko ebazpenen aurkako apelazinoak.

apelaciones contra las resoluciones dictadas por los Jueces, Juezas y Tribunales Municipales.

44. art.— Herrialde Epaimahaiko buruak euskalduna izan beharko dau.

Art. 44.— El presidente o la presidenta del Tribunal Territorial de Justicia deberá ser euskaldun.

45. art.— Herrialde Epaimahaiak jardungo dau Diziplina Araudi eta Prozedura Judizialean ezarritakoaren arabera, Herrialde Erakundeak bere eskumenen eremuan onesten dituan beste arau batzuk erabagiten dabenari kalterik egin barik.

Art. 45.— El Tribunal Territorial de Justicia ajustará sus actuaciones a lo previsto en el Reglamento Disciplinario y Procedimiento Judicial, sin perjuicio de lo que dispongan otras normas aprobadas por la Organización Territorial en el ámbito de sus competencias.

# VII. TITULUA HERRI-KARGUDUNAK

# TÍTULO VII DE LOS CARGOS PÚBLICOS

46. art.— Bizkai Buru Batzarrak arauok ezarriko ditu herrialdeko herri-kargudunentzat:

Art. 46.— El Bizkai Buru Batzar establecerá las normas que, referidas a los cargos públicos territoriales, fijen:

a) Batzar Nagusietako Taldearen barruko antolaketa.

a) La organización interna del Grupo en Juntas Generales.

b) Herrialdeko herri-kargudun guztien eta EAJ-PNVren zuzendaritzako organoen arteko komunikazino eta koordinazinorako bideak.

b) Los cauces de comunicación y coordinación de todos los cargos públicos territoriales y los órganos de dirección de EAJ-PNV.

47. art.— Bizkai Buru Batzarrak eta Uri Buru Batzarrak, euren eskumenen eremuan, eta Euzkadi Buru Batzarrak eta Herrialde Buru Batzarrak alkarregaz hartutako erispide orokorren arabera, derrigor ezarriko ditue ekonomi araubidea eta herri-kargudunak eta izendapeneko kargudunak EAJ-PNVri egin beharreko ekarpenak; eta, era berean, zainduko dabe hareek beteten dirala, berraztertuko dirala eta aldian-aldian eguneratuko dirala.

Art. 47.— El Bizkai Buru Batzar y las Juntas Municipales establecerán obligatoriamente, en el ámbito de sus respectivas competencias y conforme a los criterios generales acordados conjuntamente por el Euzkadi Buru Batzar y los Consejos Territoriales, el régimen económico y las aportaciones al Partido de los cargos públicos y cargos de designación, y velarán por su cumplimiento, revisión y actualización periódica.

Alderdikideak ez diran pertsonak izen dapeneko karguak beteteko izentetan diren kasuetan, proposatzaileak aurkeztua beharko dau proposatutakoak sinatutako idazkia; idazki honetan, proposatutakoaren kompromisoa egongo

En todos los casos de nombramientos para cargos de designación de personas no afiliadas, la persona proponente deberá presentar un escrito firmado por la persona propuesta con el compromiso de este o esta de respetar la ideología, los

da, EAJ-PNVren ideologia, egitaraua eta proiektu politikoa onartzeko, bai eta ekonomi araubidea eta adostu diran diru ekarpenak onesteko bere. Idazki hau izendatua izan baino lehen aurkeztu beharko da. Alderdikideen edo alderdikide ez diranen kasuan salbuespenik balego, salbuespen hau exekutiba eskudunak baimendu beharko dau.

programas y el proyecto político de EAJ-PNV así como el régimen económico y las aportaciones que en su caso estipulen. Dicho escrito deberá ser presentado previo a su designación. En caso de que hubiera alguna salvedad tanto en el caso de no afiliados y afiliadas como de afiliados o afiliadas, ésta deberá ser autorizada por la ejecutiva competente.

48. art.— 1. Herrialde eremuko herri-aukeraketako herri-kargudunen eskumeneko diran izendatze-proposamena aurretiaz aztertuko da, kasuan-kasuan, Bizkai Buru Batzarragaz.

Art. 48.— 1. Los nombramientos de cargos de designación que sean competencia de los cargos públicos de elección popular de ámbito territorial serán objeto de tratamiento previo, en cada caso, con el Bizkai Buru Batzar.

2. Prozedura bera beteko da herri-administrazinoaren, erakunde autonomiadunen eta erakunde-enteen izendapeneko kargu guztiak izendatzeko, baita bere zuzeneko edo zeharkako partaidetza daben soziedade publiko eta enpresetan.

2. Se seguirá el mismo procedimiento para el nombramiento de todos los cargos de designación en la administración pública, organismos autónomos y entes institucionales, así como en las sociedades públicas y empresas con participación pública directa o indirecta.

49. art.— Udalerrietako herri-kargudunen eskumeneko diran izendapeneko kargudun guztien izendatze-proposamena aurretiaz aztertuko da, kasuan-kasuan:

Art. 49.— Los nombramientos de todos los cargos de designación que sean competencia de los cargos públicos municipales serán objeto de tratamiento previo, en cada caso, con:

a) Uri Buru Batzar eskudunagaz, uri erakunde bakarra dagoan udalerrietan;

a) la Junta Municipal correspondiente, en los municipios en los que haya una única organización municipal;

b) Buru Batzarren Arteko eskudunagaz, uri erakunde bat baino gehiago dagoan udalerrietan;

b) la Interjuntas correspondiente, en los municipios en los que haya varias organizaciones municipales;

c) Bizkai Buru Batzarragaz, Buru Batzarren Artekoari entzun eta gero, Bilboren kasuan.

c) el Bizkai Buru Batzar, oída Interjuntas, en el caso de Bilbao.

# VIII. TITULUA ALDERDI BARRUKO KARGUETARAKO ETA HERRI-KARGUETARAKO HAUTAGAIAK AUKERATZEA

*I. kapitulua.— Danontzako arauak*

50. art.— 1. Alderdi barruko hauteskunde-prozesuak gauzatuko dira boto unibertsal, bardin, aske, zuzen eta pertsonalaren araubidean. Botoa isilpekoa izango da, Batzar bakotxak botoa emoteko eskubidea daben bertaratutakoen arteko ehuneko 90eko gehiengo kualifikatuak beste era batekoa egitea erabagiten dauenean salbu. Erabagi hori isilpeko bozketan hartu beharko da.

2. Alderdi barruko karguen aukeraketan, bai eta herri-karguetarako hautagaien aukeraketan bere, kontuan hartuko da unean-unean indarrean egongo diran EAJ-PNVren Emakume eta Gizonen arteko Orekarako Planean eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean erabagitakoa.

3. Botoa emoteko eskubidea erabilterakoan ez da ezein kasutan onartuko zerrenda itxirik, ezta alderdikideai zerrenda bat osorik bozkatzeko derrigortasuna emoten deutseen bideetarik ezein bere.

4. Debekatuta dago Alderdiak ezarrita dituan bideetatik kanpoko hauteskunde kanpainak egitea.

5. Hauteskunde guztietan, hautagaien aurkezpena eta hautagaiak aukeratzeko aukeraketa saioa batzar banatan egingo dira Erakunde guztietan.

# TÍTULO VIII DE LAS ELECCIONES PARA CARGOS INTERNOS Y CANDIDATOS Y CANDIDATAS A CARGOS PÚBLICOS

*Capítulo I.— Normas comunes*

Art. 50.— 1. Los procesos electorales internos se sustanciarán en régimen de sufragio universal, igual, libre, directo y personal. El voto será secreto, salvo que la Asamblea correspondiente acuerde por mayoría cualificada del 90 por ciento de sus miembros presentes con derecho a voto otro sistema de votación. Este acuerdo tendrá que adoptarse en votación secreta.

2. En la elección de cargos internos y de candidatos y candidatas a cargos públicos se tendrá en cuenta lo dispuesto en el Plan para el Equilibrio de Mujeres y Hombres en EAJ-PNV y en el Plan de Normalización del Uso del Euskera, vigentes en cada momento.

3. En el ejercicio del derecho de sufragio no se admitirán en ningún caso listas cerradas ni cualquier otro mecanismo que obligue a los afiliados y a las afiliadas a votar una lista en su totalidad.

4. Asimismo, se prohíben expresamente las campañas electorales para las elecciones internas fuera de los cauces internos del Partido.

5. En todo proceso electoral, la presentación de candidatos y candidatas y la consiguiente votación de elección en las distintas Organizaciones se realizará en Asambleas diferentes.

51. art.— Herrialdeko Alderdiaren barruko kargudunak, kontu-aztertzaileak eta herrialde mailako herri-karguetarako hautagaiak aukeratuko dira horretarako deitutako Herrialde Batzarrean dagozan boto eskubidedun ahaldunak emondako botoen gehiengo osoagaz.

Art. 51.— Los cargos internos territoriales, los censores y las censoras de cuentas, así como los candidatos y las candidatas a cargos públicos territoriales serán elegidos por mayoría absoluta de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas con derecho a voto en la Asamblea Territorial reunida al efecto.

52. art.— Hauteskundeai buruzko Aberri Araudiaren I. tituluan dagozan oinarrizko arauak aplikatuko dira udal eta herrialde mailetan egiten diran hauteskunde guztietan.

Art. 52.— Las normas básicas contenidas en el Título I del Reglamento Electoral Nacional serán de aplicación a todos los procesos electorales que se sustancien en el ámbito municipal y territorial.

## *II. kapitulua.— Herrialdeko Alderdi barruko kargudunak aukeratzea*

## *Capítulo II.— Elección de cargos internos territoriales*

53. art.— 1. Herrialdeko Alderdi barruko karguetarako hauteskunde prozesuak Bizkai Buru Batzarrak deituko ditu, salbu eta ahalmen hori Herrialde Batzarrak bere buruarentzat berenberegi hartzen dauenean.

Art. 53.— 1. Los procesos electorales para la elección de cargos internos territoriales serán convocados por el Bizkai Buru Batzar, salvo que esta facultad fuera asumida y ejercida expresamente por la Asamblea Territorial.

2. Deialdia egingo da, Hauteskundeai buruzko Aberri Araudian Alderdiaren barruko karguetarako hautagaiak aukeratzeko ezarritako epean.

2. La convocatoria se realizará en el plazo establecido por el Reglamento Electoral Nacional para la elección de candidatos y candidatas a cargos internos.

3. Bai deialdia eta bai hauteskunde egutegia Uri Erakundeak jakinarazoko ditue 5 egun naturaleko epean.

3. La convocatoria, así como el calendario electoral, serán notificados a las Organizaciones Municipales en el plazo de 5 días naturales.

54. art.— Lehenengo txandan, Uri Erakundeak, horretara zuzendutako Ezohiko Uri Batzarrean, gehiengo soilaren bitartez aukeratuko ditue euren hautagaiak alderdikideak proposatutako oinarrien arabera.

Art. 54.— En la primera vuelta, las Organizaciones Municipales, en Asamblea Municipal Extraordinaria celebrada al efecto, elegirán por mayoría simple sus candidatos y candidatas sobre la base de los nombres propuestos por los afiliados y afiliadas.

Uri Erakundeak Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari igorri beharko deutsie, hauteskunde prozesuaren deialdian ezarritako epearen barruan, gitxienez,

Las Organizaciones Municipales remitirán a la Comisión Nacional de Garantías y Control, dentro del plazo fijado en la convocatoria del proceso

| | |
|---|---|
| honako honeek: | electoral, como máximo: |
| a) Bizkai Buru Batzarreko burukide izango diran zortzi hautagai, euren artean Bizkai Buru Batzarreko burua nor izango dan azalduz; | a) ocho candidatos y candidatas a burukides del Bizkai Buru Batzar, debiendo señalar de entre ellos y ellas el candidato o candidata a presidente o presidenta del Bizkai Buru Batzar; |
| b) Herrialde Epaimahaiko kide izango diran hiru hautagai; | b) tres candidatos y candidatas a miembros del Tribunal Territorial de Justicia; |
| c) Aberri Batzarrean Bizkaiari jagokozan ordezkarien, titularren eta ordezkoen, bi herenak. | c) dos tercios de los candidatos y candidatas a representantes, titulares y suplentes, que correspondan a Bizkaia en la Asamblea Nacional. |
| 55. art.— 1. Hautagaien proposamenak Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari igorriko jakoz idatziz, eta, horretarako, hurrengook bete beharko dira: | Art. 55.— 1. Las propuestas de candidatos y candidatas se enviarán por escrito a la Comisión Nacional de Garantías y Control, cumplimentando necesariamente los siguientes extremos: |
| a) proposamena egiten dauen Uri Erakundea behar legez identifikatzea; | a) identificación suficiente de la Organización Municipal proponente; |
| b) hautagaien izen-abizenak, adina, hautagaien alderdikidetzaren eguna eta hautagaien Uri Erakundea; | b) nombre y apellidos de los candidatos y candidatas, edad, fecha de afiliación y Organización Municipal a la cual pertenezcan; |
| c) hautagai bakotxaren curriculum vitaea aurkeztea, euskalduna dan edo ez azalduz. | c) curriculum vitae de cada candidato o candidata, con indicación, en su caso, de su condición de euskaldun. |
| 2. Ahal danean, proposatutako hautagai guztiak euren izendapena berenberegi onartzen dabela sinatzen daben onarpena ekarriko da. | 2. Cuando sea posible, se aportará también la aceptación expresa de la nominación como candidato o candidata de cada una de las propuestas. |
| 56. art.— 1. Hautagaiak aurkezteko epea igarota, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak ordu arte aurkeztu diran hautagaiak alfabetoaren arabera ordenatuko ditu zerrenda orokor baten. | Art. 56.— 1. Una vez trascurrido el plazo para la presentación de candidatos y candidatas, la Comisión Nacional de Garantías y Control ordenará alfabéticamente en una lista general los candidatos presentados y las candidatas presentadas en tiempo y forma. |
| 2. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak epe bat emongo dau betekizun formalen barruan okerrak zuzentzeko edo beste zeoezer eransteko, bai eta hautagaien | 2. La Comisión Nacional de Garantías y Control abrirá un plazo para la subsanación de los errores u omisiones que hubieren podido cometerse en cuanto |

beharrezko betekizunak aztertzeko bere: botoa emoteko eskubidea, hautagai izendatzearen onarpena, alderdikide izatearen antxinakotasuna, Alderdi barruko kargu legez edo herri-kargudun legez egindako lana eta abar.

a los requisitos formales, y para analizar los requisitos personales indispensables de los candidatos y las candidatas: derecho de sufragio, aceptación de la nominación como candidato o candidata, antigüedad en la afiliación, ejercicio de cualquier cargo interno o público, etc.

3. Hautagai batek edo batzuk onarpenik emoten ez badabe, Aberri Berme eta Zaingo Batzordea eurakaz jarriko da hartu-emonetan hareek izendapena onartu daien, edo, bestela, izendatzeari uko egiteko dituen errazoiak emon daiezan. Errekerimentu horreri kasurik egiten ez bajako ezarritako epearen barruan, hautagaiak izendapena adierazo barik onartzen dauela ulertuko da. Dana dala, adierazotako nahiz adierazo bako onarpenak atzera bota ezinak izango dira, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo hautagaiaren egoera onarpenetik aukeraketara aldatzen danean.

3. Cuando no se incluya la aceptación de un candidato o una candidata o de varios candidatos o varias candidatas, la Comisión Nacional de Garantías y Control se dirigirá a estos y a estas para que manifiesten su aceptación o, en su caso, justifiquen las razones de su renuncia. Caso de que no hubiere contestación a este requerimiento dentro del plazo establecido, se entenderá que el candidato o la candidata acepta tácitamente su nominación. Toda aceptación, sea expresa o tácita, será irrevocable, salvo que concurra fuerza mayor o varíen sustancialmente las circunstancias personales del candidato o de la candidata desde el momento de su aceptación hasta la fecha de su elección.

4. Gitxienez bi Uri Erakunderen babesa jasoten ez daben hautagaiak kanporatuta geldituko dira Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak Uri Erakundeai bidaltzen deutsen hautagaien zerrenda orokorretik.

4. Aquellos candidatos y candidatas que no hubieren recibido el respaldo inicial de, al menos, dos Organizaciones Municipales, quedarán excluidos y excluidas de la lista general de candidatos y candidatas que remita la Comisión Nacional de Garantías y Control a las Organizaciones Municipales.

57. art.— Horrela esandako moduan osotutako zerrenda Uri Erakunde guztiai bialduko jake, hautagaien curriculum vitaeak emonaz eta eurak proposatu dituen Erakundeak zeintzuk diran azalduz. Era berean, kanpoan gelditu diranen zerrenda bere bialduko da, kanporatzearen errazoia edo errazoiak emonaz.

Art. 57.— La lista, así confeccionada, será remitida a todas las Organizaciones Municipales, junto con el curriculum vitae de los candidatos y candidatas e indicación de las Organizaciones proponentes. De igual manera, se enviará también la lista de candidatos excluidos y candidatas excluidas, con indicación de la causa o causas de su exclusión.

58. art.— Bigarren txandan, Uri Erakundeak, Ezohiko Uri Batzarrean, aukeratuko ditue, gitxienez, Uri Batzarrean izan eta botoa emoteko eskubidea daben kideen botoen gehiengo

Art. 58.— En la segunda vuelta, las Organizaciones Municipales, en Asamblea Municipal Extraordinaria, elegirán, por mayoría simple de votos emitidos por los miembros presentes con

soilagaz, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak bialdutako zerrendakoen artetik:

derecho a voto, de entre la lista remitida por la Comisión Nacional de Garantías y Control, como máximo:

a) Aurretiaz eta banatuta, Bizkai Buru Batzarreko burua izango dan hautagaia;

a) de manera previa y separada, el candidato o la candidata a presidente o presidenta del Bizkai Buru Batzar;

b) hamabi hautagai, Bizkai Buru Batzarreko burukideak izateko;

b) doce candidatos y candidatas a burukides del Bizkai Buru Batzar;

c) bost hautagai, Herrialde Epaimahaiko titularrak eta ordezkoak izateko;

c) cinco candidatos y candidatas a miembros titulares y suplentes del Tribunal Territorial de Justicia;

d) Aberri Batzarrean Bizkaiari jagokozan hautagai titular eta ordezkoak beste hautagai.

d) tantos candidatos y candidatas como representantes titulares y suplentes correspondan a Bizkaia en la Asamblea Nacional.

59. art.— 1. Herrialde Batzarrak aukeratuko dau, aurretiaz eta banatuta, Bizkai Buru Batzarreko burua. Horreri jagokonez, gitxienez, Herrialde Batzarrean izan eta botoa emoteko eskubidea daben ahaldunen botoen gehiengo osoa lortzen dauena aukeratuko da.

Art. 59.— 1. La Asamblea Territorial elegirá, de manera previa y separada, al presidente o a la presidenta del Bizkai Buru Batzar, resultando elegido o elegida quien alcanzare la mayoría absoluta de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas con derecho a voto.

2. Lehenengo bozketan hautagaietako batek be ez badau gehiengoa lortzen, bozketa barriro egingo da boto gehien lortu daben hautagaien artetik bakarrik.

2. Si en la primera votación ningún candidato o candidata alcanzare esta mayoría, se repetirá la votación únicamente entre los dos candidatos o candidatas que hubieren obtenido mayor número de votos.

60. art.— Herrialde Batzarrak aukeratuko ditu, Herrialde Batzarrean izan eta botoa emoteko eskubidea daben ahaldunen botoen gehiengo osoagaz, Bizkai Buru Batzarreko hamabi burukide, Herrialde Epaimahaiko bost kide titular eta ordezko, eta Aberri Batzarrera ordezkari legez joango diran titular eta ordezkoak, beti be, ondoko arauok betez:

Art. 60.— La Asamblea Territorial elegirá, por mayoría absoluta de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas presentes con derecho a voto, a doce burukides del Bizkai Buru Batzar, a cinco miembros titulares y suplentes del Tribunal Territorial de Justicia y a los y las representantes titulares y suplentes a la Asamblea Nacional, conforme a las siguientes reglas:

a) Lehenengo bozketan, ahaldun bakotxak, gehienez, bete beharreko lanpostuak beste hautagai bozkatuko ditu, eta horreen artetik aukeratuko dira botoen

a) En la primera votación cada apoderado o apoderada votará, como máximo, tantos candidatos o candidatas como puestos se hayan de cubrir, resultando elegidos o

gehiengo osoa lortzen dabenak.

elegidas quienes obtuvieran mayoría absoluta de votos.

b) Kide guztiak aukeratuak ez badira, beste bozketa batzuk egingo dira, eta horreetan parte hartuko dau bete beharreko postuak halako hautagaien kopuru bikotxak, beti be, aurreko bozketan lortutako emoitzen hurrenkerari jarraituz. Ahaldunak, gehienez, beteteko dagozan lanpostuak beste hautagai bozkatu ahal izango ditue.

b) Si no hubieran resultado elegidos todos los miembros, se procederá a ulteriores votaciones en las que participarán el doble de candidatos y candidatas al número de puestos a cubrir, siguiendo el orden de los resultados obtenidos en la votación anterior. Los apoderados y apoderadas votarán, como máximo, tantos candidatos y candidatas como puestos falten por cubrir.

c) Bete behar dan azken postuan, botoen kopuruari jagokonez, bardinketa gertatzen bada, orduan bardinduta geratu diran hautagai guztiak sartuko dira hurrengo bozketan.

c) En el supuesto de que se diera un empate en el número de votos en el último puesto a ocupar, entrarán en la siguiente votación todos los candidatos y candidatas que hubieren quedado empatados.

d) Bigarren bozketan eta hurrengoetan boto zuriak agertzen badira, boto horreen kopurua gehituko jake bozketan parte hartu daben hautagaietarik bakotxak lortutako botoai.

d) Si en la segunda votación y siguientes hubiera votos en blanco, el número de estos se sumará al de votos obtenidos por cada uno de los candidatos y cada una de las candidatas que participen en la votación.

Abstentzinoak eta boto baliobakoak zenbatuko dira boto zuriak izan balira legez.

Las abstenciones y votos nulos serán computados a estos efectos como votos en blanco.

61. art.— 1. Bizkai Buru Batzarraren agintaldian karguren bat hutsik geratzen bada, Herrialde Batzarrak kargua bete egingo dau; horretarako, aukeratuak izateko beharrezko gehiengoa lortu ez eben hautagaietariko bat aukeratuko dau, edo, bestela, Alderdi barruko hauteskundeetarako deialdia egingo dau hogeita hamar egun naturaleko epean.

Art. 61.— 1. Si durante el mandato del Bizkai Buru Batzar se produjera alguna vacante, la Asamblea Territorial procederá a cubrirla, eligiendo de entre los candidatos y candidatas que en su momento no obtuvieron la mayoría necesaria para resultar elegidos o elegidas o convocando el correspondiente proceso electoral interno en el plazo de treinta días naturales.

2. Salbuespen gisa, Herrialde Batzarrak, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuaz, kargu hutsa bete barik iztea erabagi ahal izango dau, baldin eta Bizkai Buru Batzarreko kideen gehiengoak karguari eusten badeutso.

2. Excepcionalmente, la Asamblea Territorial puede resolver, atendiendo a las circunstancias que concurran en cada caso, no cubrir la vacante, siempre que el Bizkai Buru Batzar mantenga la mayoría de sus miembros.

3. Bizkai Buru Batzarreko buruaren

3. Si se produjese la vacante del

kargua hutsik geratzen bada, Alderdi barruko hauteskunde prozesurako deialdia egingo da.

presidente o de la presidenta del Bizkai Buru Batzar, se convocará el correspondiente proceso electoral interno.

4. Herrialde Epaimahaian posturen bat hutsik geratzen bada, ordezkoak beteko dabe, bakotxak daukan aukeratze-hurrenkeraren arabera. Ordezkorik ez badago, ostera, aukeraketa barria egingo da.

4. Las vacantes en el Tribunal Territorial de Justicia serán cubiertas por los y las suplentes, de acuerdo con el orden de elección de cada uno de ellos y cada una de ellas. Una vez agotados los y las suplentes, se procederá a una nueva elección.

62. art.— Ohiko Herrialde Batzar bakotxean kontu-aztertzaile titular bi eta beste ordezko bi aukeratuko dira, eta eurak aztertuko dabe hurrengo ekitaldi ekonomikoa.

Art. 62.— En cada Asamblea Territorial Ordinaria se elegirán dos censores o censoras de cuentas titulares y dos suplentes, quienes examinarán el siguiente ejercicio económico.

Izendapen horreek hartu ahal izango ditue arlo ekonomiko-administratiboan adituak diran alderdikideak bakarrik.

Estos nombramientos recaerán necesariamente en afiliados expertos y afiliadas expertas en materias económico-administrativas.

Kontu-aztertzaileek, gainera, beharrezko txostena emoteko dokumentazino guztia izango dabe eskura Ohiko Herrialde Batzarra egin baino 15 egun lehenago, gitxienez.

Los censores y las censoras de cuentas dispondrán de la documentación necesaria para emitir el preceptivo informe con al menos 15 días de antelación a la fecha de celebración de la Asamblea Territorial Ordinaria.

Kontu-aztertzaileen txostena Ohiko Herrialde Batzarrean irakurriko da.

El informe de los censores y las censoras de cuentas será leído en la Asamblea Territorial Ordinaria.

## *III. kapitulua.— Herrialdeko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea*

## *Capítulo III.— Elección de candidatos y candidatas a cargos públicos territoriales*

63. art.— Herrialde Batzarrari jagoko, Bizkai Buru Batzarrak proposatuta, herri-aukeraketako herrialdeko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea, bai eta Batzar Nagusietako burua eta Bizkaiko ahaldun nagusia bere.

Art. 63.— Corresponde a la Asamblea Territorial elegir, a propuesta del Bizkai Buru Batzar, los candidatos y las candidatas a cargos territoriales de elección popular así como los candidatos y las candidatas a presidente o presidenta de Juntas Generales y a diputado o diputada general de Bizkaia.

Bizkaiko ahaldun nagusiak eta Batzar Nagusietako buruak euskaldunak izan beharko dabe. Hauteskunde-barrutietako

El diputado o diputada general de Bizkaia y el presidente o la presidenta de Juntas Generales deberán ser euskaldunes. Los

zerrendaburu guztiak euskaldunak izan beharko dabe.

candidatos y las candidatas que encabecen de lista de cada una de las circunscripciones deberán ser euskaldunes.

64. art.— 1. Herrialdeko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzeko hauteskundeetako deialdia Bizkai Buru Batzarrak egingo dau, salbu eta Herrialde Batzarrak berenberegi ahalmen hori bereganatu eta erabilten dauenean.

Art. 64.— 1. Los procesos electorales para la elección de los candidatos y las candidatas a cargos públicos territoriales serán convocados por el Bizkai Buru Batzar, salvo que esta facultad fuera asumida y ejercida expresamente por la Asamblea Territorial.

2. Deialdia egingo da Hauteskundeai buruzko Aberri Araudiak herri karguetarako hautagaiak aukeratzeko ezarritako epean.

2. La convocatoria se realizará en el plazo establecido por el Reglamento Electoral Nacional para la elección de candidatos y candidatas a cargos públicos.

3. Bai deialdia bai hauteskundeen egutegia 5 egun naturaleko epearen barruan jakinarazoko jakez Uri Erakundeai.

3. La convocatoria, así como el calendario electoral serán notificados a las Organizaciones Municipales en el plazo de 5 días naturales.

65. art.— 1. Herrialdeko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzeko hauteskundeen hasieran, Bizkai Buru Batzarrak Uri Erakundeai proposamena bialduko deutse hautagai honeek aukeratzeko: ahaldun nagusia izateko hautagaia, Batzar Nagusietako burua izateko hautagaia eta Batzar Nagusietako ahaldunak izateko Bizkaiko hauteskunde-barruti guztietan.

Art. 65.— 1. Al iniciarse el proceso electoral para determinar los candidatos y las candidatas a cargos públicos territoriales, el Bizkai Buru Batzar remitirá a las Organizaciones Municipales una propuesta de candidatos y candidatas a diputado o diputada general, a presidente o presidenta de Juntas Generales y a apoderados y apoderadas de Juntas Generales de todas y cada una de las circunscripciones electorales de Bizkaia.

Proposamen hori sekula be ez da loteslea izango. Edozein Erakundek osorik edo zati baten ezetsi ahal izango dau, baita beste hautagai batzukaz osotu bere.

Esta propuesta en ningún caso tendrá carácter vinculante, pudiendo las distintas Organizaciones Municipales rechazarla en todo o en parte, o integrarla con otros candidatos u otras candidatas.

2. Proposamenean, derrigor, hautagaien identifikazino datuak jarri behar dira; horrezaz gainera, adina jarriko da, adierazoko da alderdikideak diran edo ez, eta curriculum vitaea jarriko da, adierazoko da euskaldunak diran edo ez, bai eta Alderdi barruko karguren bat edo herri-karguren bat beteten daben edo ez.

2. La propuesta deberá indicar necesariamente los datos de identificación de los candidatos y las candidatas, su edad y condición de afiliados o afiliadas o no, su curriculum vitae con indicación, si procede, de su condición de euskaldunes y del ejercicio de cualquier cargo interno o público. En

Beti be, proposaturikoak hautagai izateko izendapenari berenberegi emondako onarpena azaldu beharko da.

todo caso, deberá incluirse la aceptación expresa de la candidatura por parte de los candidatos propuestos y las candidatas propuestas.

66. art.— Lehenengo hautespen aldian, Uri Erakunde bakotxak gehiengo soilaren bitartez hautagaiak aukeratuko ditu horretarako egingo dan Ezohiko Uri Batzarrean. Gainera, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari bialduko jakoz, deialdiaren idazkian aitatutako epearen barruan, gehienez, ondoko honeek:

Art. 66.— En la primera vuelta, cada Organización Municipal elegirá por mayoría simple sus candidatos y candidatas en Asamblea Municipal Extraordinaria celebrada al efecto, remitiendo a la Comisión Nacional de Garantías y Control, dentro del plazo señalado en el escrito de convocatoria, como máximo:

a) Ahaldun nagusia izateko hautagai bat;

a) 1 candidato o candidata a diputado o diputada general;

b) Batzar Nagusietako burua izateko hautagai bat, eta

b) 1 candidato o candidata a presidente o presidenta de Juntas Generales, y

c) Batzar Nagusietako ahaldun izango diran hautagaien heren bi. Horreek agertu beharko dabe EAJ-PNVk hareen Uri Erakundekoa dan hauteskunde-barrutian aurkezten dituan zerrendan.

c) dos tercios de los candidatos y candidatas a apoderados y apoderadas de Juntas Generales que deban integrar la lista que EAJ-PNV presente en la circunscripción electoral a la que pertenezca la Organización Municipal.

67. art.— 1. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak egingo ditu bigarren hautespen aldian Uri Erakundeetan bozkatuak izateko aukera daukien hautagaien zerrendak, beti be, Herrialde Estatutu honeetako 55. artikuluko lehenengo, bigarren eta hirugarren idatz-zatietan erabagitakoagaz bat etorriz.

Art. 67.— 1. La Comisión Nacional de Garantías y Control confeccionará las listas de candidatos y candidatas susceptibles de ser votados y votadas en la segunda vuelta en las Organizaciones Municipales, de acuerdo con lo dispuesto en los apartados primero, segundo y tercero del artículo 55 de los presentes Estatutos Territoriales.

2. Ahaldun nagusia edo Batzar Nagusietako burua izateko hautagaiak hasieran, gitxienez, Bizkaiko Lurraldeko hauteskunde-barrutietako edozeinetako Uri Erakunde biren babesa jaso behar izango dabe; babes hori lortzen ez daben hautagaiak geratuko dira bigarren hautespen aldian bozkatu daitekezan hautagaien zerrendatik kanpo.

2. Aquellos candidatos y candidatas a diputado o diputada general o a presidente o presidenta de Juntas Generales que no hubieren recibido el respaldo inicial de, al menos, dos Organizaciones Municipales de cualesquiera de las circunscripciones electorales del Territorio de Bizkaia, quedarán excluidos o excluidas de la lista de candidatos y candidatas susceptibles de ser votados o votadas en la segunda vuelta.

3. Era berean, Batzar Nagusietako ahaldunak izateko hautagaiak baztertuta geratuko dira, hauteskunde-barruti bereko Uri Erakunde biren babesa, gitxienez, jasoten ez badabe.

3. Quedarán excluidos y excluidas asimismo, aquellos candidatos y aquellas candidatas a apoderados y apoderadas de Juntas Generales que no hubieren recibido el respaldo inicial de, al menos, dos Organizaciones Municipales pertenecientes a la misma circunscripción electoral.

4. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak zainduko dau Batzar Nagusietako ahaldun izateko hautagaiak izan ez daitezan hauteskunde-barruti batekoak baino gehiagokoak.

4. La Comisión Nacional de Garantías y Control velará por que ningún candidato ni candidata a apoderado o apoderada de Juntas Generales lo sea por más de una circunscripción electoral.

68. art.— Zerrenda horreek Uri Erakundeetara bialduko dira, hautagaien curriculum vitae eta Erakunde proposatzaileen izenakaz batera. Era berean, baztertu diran hautagaien zerrendak be bialduko dira, baztertzearen errazoia edo errazoiak azalduz.

Art. 68.— Las listas así confeccionadas serán remitidas a todas las Organizaciones Municipales, junto con el curriculum vitae de los candidatos y candidatas e indicación de las Organizaciones proponentes. De igual manera, se enviarán también las listas de candidatos excluidos y candidatas excluidas, con indicación de la causa o causas de su exclusión.

69. art.— 1. Bigarren hautespen aldian, Uri Erakundeak, Ezohiko Uri Batzarrean, aukeratuko ditue Batzarrean izan eta botoa emoteko eskubidea daben kideak emoniko botoen gehiengo soilagaz, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak bialdutako zerrendan dagozanen artetik, gehienez:

Art. 69.— 1. En la segunda vuelta, las Organizaciones Municipales, en Asamblea Municipal Extraordinaria, elegirán, por mayoría simple de los votos emitidos por los miembros presentes con derecho a voto, de entre las listas remitidas por la Comisión Nacional de Garantías y Control, como máximo:

a) Aurretiaz eta banatuta, Bizkaiko ahaldun nagusia eta Batzar Nagusietako burua izateko dan hautagaia.

a) De forma previa y separada, a su candidato o candidata a diputado o diputada general y a presidente o presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia.

b) EAJ-PNVk Uri Erakundearen hauteskunde-barrutian aurkezten dauen hautagai-zerrenda osotzen daben hautagai guztiak.

b) Todos los candidatos y candidatas que deban integrar la candidatura que presente EAJ-PNV en la circunscripción electoral a la que pertenezca la Organización Municipal.

c) Era berean, Uri Batzarrak aginduzko manamentua emongo deutse bere ahaldunai, Herrialde Batzarrak beste hauteskunde-barrutietan onesten dituan

c) Así mismo, la Asamblea Municipal otorgará mandato imperativo a sus apoderados y apoderadas, para ratificar las candidaturas que se aprueben en la

hautagai-zerrendak berronesteko.

Asamblea Territorial por las otras circunscripciones electorales.

2. Aberri Estatutuetako 83.1 artikuluan ezarritakoa beteteko, Uri Erakundeak berehalaxe jakinarazo beharko deutsie Bizkai Buru Batzarrari bigarren hautespen aldiko emoitzak.

2. Para dar cumplimiento a lo prescrito en el artículo 83.1 de los Estatutos Nacionales, las Organizaciones Municipales darán cuenta inmediata al Bizkai Buru Batzar del resultado de las votaciones efectuadas en la segunda vuelta.

70. art.— Bizkai Buru Batzarrak, Uri Erakundeai jakinarazpena egin eta gero, proposamen bateratzailea aurkeztu beharko dau Herrialde Batzarrean. Horrela, proposamen hori gauzatuko da Uri Erakundeak onetsitako hautagai-zerrenden artetik, Batzar Nagusietako Taldearen ezaugarriak kontuan hartuta, beti be lantalde egokia prestatzeko asmoagaz.

Art. 70.— El Bizkai Buru Batzar, previa comunicación a las Organizaciones Municipales, presentará ante la Asamblea Territorial una propuesta integradora, elaborada entre las candidaturas aprobadas por las Organizaciones Municipales, de cara a la formación de un adecuado equipo de trabajo, teniendo en cuenta las características del Grupo de Juntas Generales.

Proposamenak, gainera, ahalik eta errespeturik gehiena izan beharko deutso Uri Erakundeetako gehiengoak hareen Batzarretan azaldutakoari.

La propuesta será elaborada con el máximo respeto a la voluntad mayoritaria expresada por las Organizaciones Municipales en sus Asambleas respectivas.

Uri Erakundeak proposamen horren barri euki beharko dabe, gitxienez, aukeraketa egin behar dauen Herrialde Batzarra egin baino bost egun natural lehenago.

Esta propuesta deberá ser conocida por las Organizaciones Municipales con, al menos, cinco días naturales de antelación a la fecha de celebración de la Asamblea Territorial que debe proceder a la elección.

Herrialde Batzarrak Bizkai Buru Batzarraren proposamena onartu edo ezetsi ahal izango dau, osorik nahiz zati baten, edo beste hautagai batzukaz osotu.

La Asamblea Territorial podrá aceptar o rechazar, en todo o en parte, la propuesta del Bizkai Buru Batzar, o integrarla con otros candidatos y otras candidatas.

71. art.— 1. Herrialde Batzarrean aukeratuko dira, boto eskubidea daben ahaldunak emondako botoen gehiengo osoagaz, aurretiaz eta banatuta, ahaldun nagusia izateko hautagaia eta Batzar Nagusietako burua.

Art. 71.— 1. En la Asamblea Territorial se elegirá por mayoría absoluta de los votos emitidos por los apoderados y apoderadas con derecho a voto, de forma previa y separada, al candidato o a la candidata a diputado o diputada general y a presidente o presidenta de Juntas Generales.

2. Herrialde Batzarraren barruan aukeratuko dira boto eskubidea daben

2. En el marco de la Asamblea Territorial se elegirá por mayoría absoluta de los

hauteskunde-barruti bakotxeko ahaldunak emoniko botoen gehiengo osoagaz, EAJ-PNVk hauteskunde-barruti bakotxean aurkezten dituan hautagai-zerrendak osotu behar dituen hautagai guztiak, bai eta zerrenda horreen hurrenkera bere.

votos emitidos por los apoderados y apoderadas de cada circunscripción con derecho a voto a cada uno de los candidatos y a cada una de las candidatas que deban integrar las candidaturas que presente EAJ-PNV en cada circunscripción electoral y su orden en las mismas.

Jarraian, Herrialde Batzarrak, batera, berronetsiko ditu hauteskunde-barruti bakotxeko ahaldunak aukeratutako hautagaiak.

A continuación, la Asamblea Territorial, en conjunto, ratificará los candidatos y las candidatas que hayan resultado elegidos y elegidas por los apoderados y las apoderadas de cada circunscripción.

3. Herrialde Batzarreko ahaldun bakotxak bozkatuko dau Bizkai Buru Batzarrak proposatutako hautagaia edo, bestela, edozein ahaldunek proposatutakoetako bat; horrela, hautagai guztiak aukeratuko dira hautagai-zerrenda bakotxean jagokezan postuak betez.

3. Cada apoderado o apoderada en la Asamblea Territorial votará al candidato propuesto o a la candidata propuesta por el Bizkai Buru Batzar o a cualquier otro propuesto u otra propuesta alternativamente por cualquier apoderado o apoderada, procediéndose sucesivamente a la elección de la totalidad de los candidatos y candidatas dentro de los puestos que deban ocupar en cada una de las candidaturas.

Lehenengo bozketan hautagaietako batek be ez badau gehiengo osoa lortzen, bozketa barriro egingo da boto gehien lortu daben hautagaien artetik bakarrik.

Si en la primera votación ningún candidato o ninguna candidata alcanzare la mayoría absoluta, se repetirá la votación, únicamente entre los dos candidatos o candidatas que hubieran alcanzado el mayor número de votos.

## *IV. kapitulua.— Alderdi barruko uri kargudunak eta udalerriko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea*

## *Capítulo IV.— Elección de cargos internos municipales y de candidatos y candidatas a cargos públicos municipales*

72. art.— Kapitulu honek dihardu Alderdi barruko uri karguetarako eta udalerriko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzearen gainean; bada, kapitulu hau aplikatuko da Bizkaiko Uri Erakundeetan, baldin eta hareen Uri Estatutuetan jasota ez badago prozedura berezirik.

Art. 72.— El presente capítulo de elección de cargos internos municipales y de candidatos y candidatas a cargos públicos municipales resultará de aplicación supletoria en aquellas Organizaciones Municipales de Bizkaia que no dispongan de un procedimiento propio recogido en sus Estatutos Municipales.

73. art.— 1. Alderdi barruko uri kargudunak eta udalerriko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzeko hauteskunde prozesuak Uri Buru Batzarrak deituko ditu, salbu eta ahalmen hori Uri Batzarrak berenberegi bereganatu eta erabilten dauenean.

Art. 73.— 1. Los procesos electorales para la elección de los cargos internos municipales y de los candidatos y las candidatas a cargos públicos municipales serán convocados por la Junta Municipal, salvo que esta facultad fuera asumida y ejercida expresamente por la Asamblea Municipal.

2. Deialdia egingo da, aukeraketa egin baino 30 egun natural lehenago gitxienez.

2. La convocatoria se realizará con al menos 30 días naturales de antelación a la fecha del acto de elección.

### 1. ATALA.— ALDERDI BARRUKO URI KARGUDUNAK AUKERATZEA

### SECCIÓN 1ª.— ELECCIÓN DE CARGOS INTERNOS MUNICIPALES

74. art.— 1. Alderdi barruko uri kargudunak aukeratzeko prozesua behin deitu eta gero, Uri Erakundeko alderdikideak, gitxienez, hamabost eguneko epea izango dabe hautagaiak proposatzeko.

Art. 74.— 1. Una vez convocado el proceso electoral para la elección de cargos internos municipales, los afiliados y las afiliadas de la Organización Municipal contarán con al menos quince días de plazo para proponer candidatos y candidatas.

2. Hautagaien proposamenek, gitxienez, ondokoak izan beharko ditue: proposatzaileak identifikatzeko behar besteko azalpena, proposaturiko hautagai bakotxaren izen-abizenak eta proposaturiko karguaren azalpena. Ahal danean, proposatutako bakotxak hautagai izateko izendapena berenberegi onartzen dauelako adierazpena bere erantsiko da.

2. Las propuestas de candidatos y candidatas deberán contener, cuando menos, identificación suficiente de los y las proponentes, nombre y apellidos de cada candidato propuesto o candidata propuesta e indicación del cargo o cargos para el que es propuesto o propuesta. Cuando sea posible, se aportará también la aceptación expresa de la nominación como candidato o candidata de cada uno de los afiliados propuestos y cada una de las afiliadas propuestas.

3. Uri Buru Batzarrak, garai eta behar dan eran aurkezturiko hautagaien alfabetoaren araberako zerrenda orokorra egingo dau, eta hautagaien onarpena eskatuko dau proposamenean bertan horrela azaltzen ez danean.

3. La Junta Municipal ordenará alfabéticamente los candidatos propuestos y candidatas propuestas en tiempo y forma, y recabará la aceptación de los candidatos y candidatas, cuando no se hubiere incluido en la propuesta.

